

# ASTELEHENKO Goienkaria

2008ko urtarrilaren 21a > Astelehenetik > IV. urtea > 174. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Gazteen artean  
alokairua  
bultzatu nahi da  
emantzipazio  
errentarekin"

Dorleta Kortazar

Gazte Bulegoko  
arduraduna > 06



## G2a

'Gu eta gutarrak'  
bertso emanaldia  
Elgetan > 23

**ARRASATE**  
Emakumeentzako Jabetze Eskola:  
ikastaroak ekainera bitartean > 09

**BERGARA**  
Belar artifizialeko futbol zelaia  
egingo du Udalak Ipintzan > 11

**KIROLA**  
Patxi Mutiloa Aspeko gerenteari  
elkarritzeta > 20

BERTAKO PRODUKTUAK > TXAKOLINA

## Ekoizleak bueltaka Getariako txakolina izendapenarekin

### UDABERRIRAKO

Apirilean  
Getariako txakolina izendapena  
erabiltzeko itxaropena daukate  
ibarreko ekoizleek

### LAU EKOIZLE

Arrasaten  
Kataide eta Otxia; Oñatin Upain  
eta Bergaran Amatiño; lau  
ekoizle dira gurean

### GORAKA

Iaz baino mahats  
gehiago jaso dute aurten;  
kalitatearen pozik dira  
Debagoineneko ekoizleak > 02

ARRASATE > KOMERTZIOA

## Eroski, handitu guran

Ibai Arte dendarien  
elkartea ez dago  
ados Eroskiren  
asmoekin > 10

### AHTren gainean informatzeko bilera egin dute alkateek lurren jabeekin

Arrasateko Kulturateko areto nagusia bete egin zen, Debagoineneko udal ordezkariek lurjabeekin egindako bilera. Ingeniari eta abokatu bana ere izan ziren batzarrean.

Udalek eta lurren jabeek gai honetan dituzten esku men eta eskubideak aztertu zituzten, aurrerantzean nola jokatuk jakiteko. Alkateak oso gustura agertu ziren bilera ren emaitzarekin, euren esanetan erakusten baitu egia dela behin eta berri z esaten ari direna, gaiaren gainean informazio nahikoa ez dagoela, alegia. > 4



ALKATEAK Arrasate, Eskoriatza, Antzuola, Gatzaga, Aramaio eta Angiozarkoa izan ziren, Bergarako Roberto Martinez zinegotziarekin batera.

JOSETXO ARANTZABAL

### AURKIBIDEA

Debagoinena > 04-05  
Elkarritzeta > 06  
Iritzia > 07-08  
Herriak > 09-14  
Kirola > 15-22  
Kultura > 23-27  
Sailkatuak > 28  
Irrati-Telebista eta  
Hitzorduak > 29  
Berri-zakua > 30-31  
Azkena > 32

### EMAKUMEIA > TRATU TXARRAK

## Azken hilketa salatzu

Egubakotzean Iruñean hil zuten Tatiele De Souza gaztearen heriotza salatzeko elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean, Arrasaten. 50 lagun inguru elkartu ziren, Emakumearen aurkako indarkeria salatzeko. > 05

### FUTBOLA > PREFERENTE MAILAKO DERBIA

## Aretxabaletak 0-4 irabazi zion atzo Aloñari, Oñatin

Aretxabaletak jipoi ederra eman zion atzo Aloña Mendiri, Azkoagainen jokatutako derbian. Igor Arenazaren taldea 0-4 nagusitu zen, erraz. Partidu eskasa egin zuten etxekek eta aretxabaletarrak ondo aprobatxatu zituzten oñatiarren hutsak. Aloña Mendik jarraian galdu duen bosgarren partidua izan zen atzokoa.

Mondrak, berriz, bana berdin du zuen Azkoitira egindako bisita. Sailkapenean arrasatearrak ditugu ibarreko talderik onena, seigarren tokian, 29 punturekin. Atzoko garaipenaren ostean UDA puntu bakar batera dago, zazpi garren, eta Aloña Mendi hamai-kagarren postuan dago, 23 punturekin. > 15

### ÖÑATI > MOTORRA

## Auto karabanen bilkura

Sorbelz auto karabana erabiltzaileen euskal elkartea urteko batzarra egingo du aste bukaeran, Oñatin. Antolatzaileen arabera, 50 karabana inguru etorriko dira Oñatiara. Ibarra futbol zelaian elkartuko dira. > 12

BERTAKO PRODUKTUAK &gt; TXAKOLINA

# Ibarreko ekoizleek bueltaka dihardute Getariako txakolina izendapenarekin

**UDABERRIRAKO** Apirilean izendapena erabiltzen hastea espero dute; mahastiak legeztatzen dituen eskubideak erosteko dirua jarri dute dagoeneko

**LAU EKOIZLE GUZTIRA** Arrasaten Kataide eta Otxia daude; Oñatin Upain eta Bergaran Amatiño; bada, azken horrek etxerako bakarrik egiten du

**AURTENGKO PROUKZIOA** Joan zen urtean baino mahats gehiago jaso dute aurten; kalitatearekin ere pozik daude ibarreko ekoizleak

MIRIAN BITERI &gt; BERGARA

Hilabetek daramatza Debagoieneko txakolinak kupeletan sartuta. Urria aldean, mahatsak jaso eta irakiten hilabete inguru eman ostein, lasai asko dago orain muztioa kupeletan, botiletan noiz sartzeko zain. Batzuei egun gutxi batzuk baino ez zaizkie geratzen dastatuak izateko. Joan zen egunean denboraldi berriari hasiera eman zioten Getarian.

Lau txakolin ekoizle daude guztira gurean: Arrasaten Kataide eta Otxia; Oñatin Upain eta Bergaran Amatiño. Bada, azken horrek etxerako baino ez du txakolina egiten.

Ekoizleek jakinarazi dutenez, aurtengo ibarreko txakolina ez da oraindik Getariako txakolina izendapenarekin salduko. Jatorrizko izendapenean sartzeko prozesuan murgilduta daude-eta ekoizleak. "Apirilean sartuko omen gara behingoz", jakinarazi du Arrasateko Kataide txakolindegiko Jabier Arregik.

Izendapenaren barruan sartzeko mahastiak legeztatuta izan behar dituzte. Alegia, landatzeko eskubidea izan behar dute. Horretarako, Europak araututa dituen eskubideak erositzen ekoizleek. Horiek eskuratzeko dirua jarri dute dagoeneko ibarrekoek eta orain, erantzun baten zain daude. Gobernu espainiarak Gipuzkoako Diputazioari eskubideak ematen dizkio eta Diputazioa, ondoren, horiek lurralte osoko ekoizleen artean banatzeaz arduratzen da.

**PROZESU LUZEA**

Gipuzkoari dagozkion eskubide guztiak banatuta daudenez, Espainiako beste erkidego batzuei erositzen behar izan dizkiote horiek. Murtzia, Andaluzia eta Gaztela-Leon, hain zuzen. Zeregin horretan dabilta gaur egun Debagoieneko ekoizleak. "Luze doa prozesua eta urduritzen hasita gaude", azaldu du Arregik.

Arrasateko Hegiaundi baserrikoak hogei urte daramatza txakolina egiten. Lehen urteetan ez zuen jatorrizko izendapenean sartzeko asmorik izan. "Ekoizle txikia nintzenez ez nuen horretan



MAHASTIETAN LANEAN Urria aldean ibili ziren ibarreko ekoizleak mahatsa jasotzen.

GOIENKARIA

larregi pentsatzen. Ez nuen horren beharra ikusten", dio. Bada, urteak pasa ahalia, iritziz aldatu zuen eta Diputazioa joan zen egoera legeztatzeko asmoz.

Ezetzta jaso zuen Arregik erantzun moduan. Getarian, Zarautzen eta Aian egiten ziren ardoak baino ez ziren sartzen Getaiako txakolina jatorrizko deitura horretan. Bada, joan zen urtean, Gipuzkoako Diputazioak, Getaiako txakolina jatorri izendapenaren kontseilu arautzaileak eta Atxagi elkartea izendapena Gipuzkoako udalerri guztietara zabaltzea adostu zuten. Ordutik hona gogor dabilta gurean egoera ahalik eta azkarren legeztatzeko asmoz.

#### HEKTAREEN EROSKETA

Jabier Arregik hiru hektarea legeztatzeko eskubideak erosiditu; eta Arrasateko Otxia txakolindegiko Felix Etxagibeak hektarea bakarra. Bergarako Amatiñoko Karlos Mendizabalek, berriz, ez du eskubiderik erosit. Oñatioko Upaineko Juan Zelaia-rekin kontaktuan jartzen saiatu bagara ere, ez dugu berarekin hitz egitea lortu.

Izendapenaren prozesu luze horrekin amaitu aurretik, Gipuzkoako errorestroan mahastien izena eman beharko dutela gaineratu du Arrasateko Artazubiaga baserriko eta Otxia txakolindegiko Felix Etxagibeak. Jarraian, Getariako txakolina

izendapenaren barruan sartu dira debagoiendarrak. Jatorrizko izenaren etiketak jasoko ditu eta orduan, botiletan jartzeko.

Aurtengo txakolinaren kalitateaz ere hitz egin du Etxagibeak. Hala, kantitate aldetik, joan zen urtean baino %20 gehiago irten dela aipatu du. Guztira, hasi berri den denboraldi horretan, 4.000 kilo mahats jaso dituela eta 4.500 litro irten direla jakinarazi digu Otxiakoak.

#### ALKOHOL GUTXIAGO

Kalitateari dagokionez, aurten go ardoak "heldutasun gutxiago" duela azaldu du Etxagibeak. "Alkohol gutxiago du aurten, 10,5 eta 10,7 ° artean dago", azpimarratu du. Beste urte batzutan, 11 eta 11,5° artean egon dela dio.

Oraindik kupeletan dago sartuta muztioa. Otsailaren bigarren hamabostaldian botilan sartuko dute aurtengo uzta. "Prozesu naturala jarraitu beharra dago. Hotzarekin sartu behar da botiletan", dio Etxagibeak. Horrez gain, "bere nortasuna lortu dezan" txakolina egiteko prozesuak bost bat hilabete iraun behar duela gaineratu du Bedoña auzoan dagoen Artazubiaga baserriko ugazabak.

Arregik, berriz, 20.000 bat kilo mahats lortu ditu aurten. Alegia, 18.000 bat litro. Joan zen urtean kilo gutxiago eskuratu zituela ere esan du. Txakolinaren kalitatea ona dela ere adierazi du.

## Oraindik kupeletan dago txakolina. Felix Etxagibeak otsailaren bigarren hamabostaldian sartuko du botiletan. Hotza ona da horretarako

## Bergarako Angiozar auzoan, Partaitin, San Bixente eguna ospatuko da domekan. Jabier Arregiren txakolina dastatzeko aukera egongo da han



PARTAITI Irudian, Jabier Arregi joan zen urtean, Partaitin.

ARTXIBOA

"Gardena eta garbia da eta usain ona du aurtengo ardoak. Ondo tratatu ditugu mahastiak eta emaitza onak izan ditugu. 11° inguru ditu", zehaztu du. Bada, txakolinaren kalitatea nolakoa den "beste batzuek esan beharko dute" ere esan du Kataideko ugazabak.

#### SAN BIXENTE EGUNA DOMEKAN

Batzuek Arregiren muztioa probatzeko astia izan dute dagoeneko. Arrasateko Santamasetan probatzeko aukera izan zuten-eta. Hala ere, oraindik dastatu ez dute-nak ez dira arduratu behar. Datorren aste bukaeran izango dute eta Kataideko aurtengo denboraldiko txakolina dastatzeko aukera. Datorren domekan, urtarriak 27, Bergarako Angiozar auzoan San Bixente eguna ospatuko dute eta aurreko urteetako ohiturarekin jarraituz, Partaitira joango da Hegiaundi baserriko Arregi.

Egun horretan hamarretako berezia egoten da Angiozaren, Partaitin. Auzoak pintxoak ematen ditu. Horiek hobeto sartzeko, Kataideko txakolinarekin lagun-

du ahal izango dute hara bertaratzen direnek. "Giro ederra izaten da San Bixente egunean, jende asko gerturatzentz da-eta", dio.

Ibarreko ekoizleek etxeen bertan saltzen dute euren txakolina. Arregik eta Etxagibeak, bereziki, "ingurukoei" ematen diete. Bada, gauzak alda daitezke hemendik gutxira. Getariako txakolina izendapenean sartzean, bidean "traba" gutxiago izango dituztela aipatu du Etxagibeak. Hala, azoketara joateko aukera ere izango dute.

Bergarako Amatiñoko baserriko Karlos Mendizabalek ez du horretan pentsatzen. Esan bezala, etxerako baino ez du txakolina egiten eta beraz, ez da prozesu horretan sartu gura izan. Aurten, 400 litro inguru egin ditu, inguruko artean banatzeko.

Getariako txakolina izendapenaren etiketa izan edo ez, ibarreko txakolinaren kalitatea ez da aldatuko. Goxo-goxoa izaten jarraituko du edozein modutan ere. Bada, aurtengo uzta norberak probatzea izango da onena.

## Ekoizpena Debagoienean

HERRIA	BASERRIA	EKOIZLEAREN IZENA	PRODUKZIOA
ARRASATE	Hegiaundi	Jabier Arregi	18.000 litro
ARRASATE	Artazubiaga	Felix Etxagibel	4.000 litro
BERGARA	Amatiño	Karlos Mendizabal	400 litro

## SAGARDOA



GIRO BIKAINA Mila Elortzak eta Asier Agirrek ireki zuten sagardo eta txakolin denboraldia Iturrieta.

IRATI AGIRREAZALDEGI

## Txotx garaia iritsi da Debagoienera, Iturrieta sagardotegiaren eskutik

Zapatuan sagardo eta txakolin denboraldi berria hasi zuten Aramaioko Iturrieta sagardotegian. AHT Gelditu! Elkarlanako kide Asier Agirrek eta Mila Elortzak -Aramaioko eta Angiozarko alkateak hurrenez hurren- egin zuten irekiera horren txotxa. Sagardo denboraldiari ez ezik, ibarreko txakolinari ere ongi etorria egin zioten. Irekieraren aurretik eta ondoren, herriko trikitilaria eta bertsolariak giroa alaitzeaz arduratu ziren.

Aurtengo sagardoa kalitate oneko dela dio Iturrietako arduradun Aitor Etxabek, temperaturak eta eguraldia nahiko onak izan direlako. Bada, "udako temperaturak freskoak izan dira eta abuztua eta iraila bitartean sagarrak heldu bai baina ez dira jausí", gaineratu du. Sagardo "orekatua, egonkorra, usain bizikoa eta gorputz askokoa" dela esateaz gain, aurreko urtekoa baino alkohol gutxiago duela aipatu du. Koloreari dagokionez, "lasto kolorekoa" dela esan du.

Iturrietako sagardoa ez dute han bertan egiten. Gipuzkoatik ekartzen dute, Usurbileti. Saizar sagardotegikoa da, hain zuzen ere, Iturrieta daukatena.

#### SAGARDOTEGI BERRIA ARRASATEN

Orain arte sagardotegi bakarra egon da Debagoienean. Bada, datozen hilabeteotan, bigarren bat zabalduko dute ibarrean. Arrasaten, hain zuzen. Aitor Etxabe bera da proiektu hori martxan jarri duena. Lanak aurreratuta daudela eta uda partean zabaltzea espero duela aipatu du. Jatetxea Bizkaiko etorbidean egongo da, Kanpanzarrerako bidean. Garaje berriak egiten ari diren eraikineko goi partearen, alegia. Txorronda erretegia deituko da eta 60 bat

lagunendako tokia izango du. Iturrieta bezala funtzionatuko du. Sagardoa Saizar sagardotegiari erosiko diote txotx denboraldirako. Gainontzeko hilabeteetan, erretegi bezala funtzionatuko du.

Aramaioko sagardogileek, bestalde, sagardoa prest dute dagoeneko. Sagardogileen elkarteko presidente Juan Antonio Aretxagak azaldu duenez, bazkide guztien artean,

12.000 sagardo eta zuku pasteurizatu litro inguru atera dituzte. Pozik daude Aramaioko sagardogileek aurtengo sagardoarekin. "Probatu dugu dagoeneko eta oso ona dago. Kolore ona du eta gorputz apur bat hartzea baino ez zaio falta", jakinarazi du Aretxagak. Kopuru aldetik aurten eskasagoa izan dela esan du. Etxean kontsumitzeko egiten dute sagardogileek sagardoa.



BETETA Itxura hauxe hartu zuen zapatuan Kulturateko areto nagusiak.

JOSETXO ARANTZABAL

DATUA

**1.000**  
KAMIOI EGUNEAN

Kimetz Etxeberriak ohartarazi zuen AHTren eraikitze lanetan, zabortegiek bakarrik, kamioi ugariren joan-etorria eragingo dutela. Etxeberriaren esanetan, kilometro bateko eremuan, egunean mila kamioi baino gehiago mugiaraziko dituzte.

ESANAK

"Kaltetuak denok gara; beraz, gure erronka da herritar guztiei informazioa ematea. Gaur egun dagoena da intoxikazio handia"

Ino Galparsoro  
> Arrasateko alkatea

"Lurranek bezalako ekimenak ez dira ari informatzeko helburua betetzen. Jaurlaritza diru publiko asko ari da gastatzen propaganda egiteko"

Pedro Lasagabaster  
> Eskoriatzako alkatea

ARRASATE &gt; AHT-REN GAINeko AZALPENAK EMATEKO BILERA LURJABEEKIN

# Informazio eza agerian uzten du aretoa bete izanak, alkateen iritziz

Udal ordezkariekin batera ingeniari eta abokatu banak ere proiektuaren gainean jardun zuten

Edozein zalantzaren aurrean udaletxeetara jotzera gonbidatu zitzuten alkateek kaltetutako lurjabeak

JULEN IRIONDO > ARRASATE  
Dozenaka lurjabek erantzun zioten AHTren gainean informazioa emateko zazpi alkatek egindako bilera deiari. Udal ordezkarien esanetan "proiektuaren gaineko desinformazioak bereziki eragiten die desjabetu eta zuzeneko kaltetuei", eta horregatik erabaki dute hauekin biltzen hastea. Arrasateko alkate Ino Galparsororen aburuz lurjabeek aretoa bete izanak erakussten du "intoxikazio eta propagandaz" haratago, informazio nahi-korik ez dutela.

Arrasatekoarekin batera, Eskoriatzako, Leintz Gatzagako, Aramaioko eta Antzuolako alkateak izan ziren zapatuko bileran, eta baita Mila Elorza Angiozarko auzo-alkatea eta Roberto Martinez zinegotzia ere, azken hau Bergarako ordezkari legez. Hauekin batera, Kimetz Etxeberria, Bide, Ubide eta Por-

tu ingenaria eta EHNE sindikatuko abokatu Pavel Viñas ere izan ziren.

LURJABEEN ESKUBIDEAK  
Kimetz Etxeberriak AHTren gaineko azalpen tekniko orokorrak emateaz gain, azpiegiturak inguruko lur eta uretan izango lituzkeen ondorioak azaldu zituen. Trenak horiek galdu eta kutsa-

tza ekarriko lukeela adierazi zuen. Ingurumenari eta onura ekonomikoari dagokionez, egitasmoaren aldekoek ematen dituzten arrazoia gezurtatu egin zituen Etxeberriak. "Astakeriatz" jo zuen egitasmoa.

Viñasek, beriz, desjabetze prozesuaren gainean jardun zuen. Zentzu honetan, lurjabe eta udalek eskumenak eta eskubideak

## Beasaingo bi gazteen kasua salatu dute

Eskuorri batzuk banatzeagatik Beasaingo bi gazteren auzia Espainiako Entzutegi Nazionalaren esku utzi dutela-eta, "ze demokrazia klase" den hau galdegin zuten alkateek. Adierazi zuten, ETAK agiri bitartez AHTren aurka egitera dei egin zuelako, agiri horren aurrekoaren -azaroan izan zen- ekimen baketsu honetan parte hartu zuten bi lagun ustezko terrorismo delitua egozten dietela. "Lotsagarria da. Beldurraren bidea hartu dute, AHTren aurkako ekintza denak kriminalizatuko dituzte, baina gure eskubidea da aurka egon eta jendeari gure arrazoia azaltza", esan zuen Pedro Lasagabaster Eskoriatzako alkateak.

izan badituztela adierazi zuen, nahiz eta, gaineratu zuenez, eman-dako informazio eskasagatik horiek zeintzuk diren sarri ez eza-gutu. Adibide moduan jarri zuen lur-zundaketak jabeen baimenik gabe egiten direla askotan. Age-rraldian azaldu zutenez, udalerri batzuen kasuan desjabetuak izan daitezken pertsonen zerrendak eginak daude; beste batzuetan, ordea, administrazioak oraindik aurreproiektuetan ari direla eta lurjabeek "plano batzuetan marraztutako marratxoak baka-rrrik" dituztela adierazi zuten, eta askok ez dakitela euren baserri edo lurruk hartuko dituzten.

Bilera amaitzeko, han bildutako udal ordezkarien izenean AHTren aurka egoteko dituzten arrazoien eta aurrerantzean jarraituko duten bidearen berri eman zuen Aramaioko alkateak. Kulturaren bildutako udal ardu-radunen arabera "ondorio ekonomiko eta sozial larriak eragingo ditu azpiegitura honek, ingurume-nean kalte handiak ere bai, eta lehentasuna da herritarrak informatza". Aurrena lurjabeekin bildu nahi izan dute, dena den, gainerako herritarrak ere informatu nahi dituzte. "Kaltetuak denok gara, eta gure erronka da denon-gana iristea", adierazi zuen Ino Galparsorok, eta Pedro Lasagabasterrek salatu zuen "propagandan diru publiko asko" ari dela gasta-tzen Jaurlaritza, eta Lurranek bezalako ekimenek ez dutela kaltetuak informatzeko jarritako hel-burua betetzen.

EMAKUMEA > TRATU TXARRAK

# Tatiele De Souzaren hilketa salatzeko elkarretaratzea egin zuten atzo Arrasaten

Tatiele De Souza zapatuan hil zuten Iruñean, lepoa moztuta; Euskal Herrian emakume bat hiltzen duten bakoitzean, kontzentrazioa deitzen du Arrasateko taldeak

EDU MENDIBIL > ARRASATE  
Arrasateko Emakumearen aurkako indarkeriaren kontrako plataformak deitura, 50 lagun inguru elkartu ziren atzo iluntzean Herriko Plazan, ostiralean Iruñean gertatutako Tatiele De Souza 20 urteko neska brasildarraren hilketa salatzeko. Ustez Tiago Rosa herrikideak hil zuen Tatiele De Souza, lepoa moztuta. Era soaren ondoren, bere burua etxeko laugarren solairutik behera bota zuen eta atxilotu egin zuten 23 urteko mutil gaztea.

Tratu txarren ondorioz Euskal Herrian emakume bat hiltzen duten bakoitzean, handik 48 orduera kontzentrazioa deitzen du Arrasateko taldeak. Rosa Urzea



KONTZENTRAZIOA Ordu erdiko elkarretaratzea egin zuten atzo Arrasaten De Souzaren hilketa gaitzesteko. JOSETXO ARANTZABAL

laiaren hitzetan, "arazo honekiko sentsibilizazioa piztea da gure helburua. Gizonezkoei eta emakumeoi eragiten digun kontua da eta horrelakoak salatuz argitara

ekarri nahi dugu, arazo honen larritasunaz jabetu gaitezen. Heziketa mailan lan asko dago egiteko, honelako kasuak gutxitzen joateko."

**HAMABOSTEAN BEHIN BILERA**  
Taldeko kideak hamabostean behin elkartzen dira Emakume Txokoan. Hurrengo bilera otsailaren 5ean izango dute, 18:30ean.

## Edukontzi bat erre zuten domeka goizean Bergarako Ubera auzoan

Argazkian ikusten denez, edukiontzia bat erre zuten ezezagun batzuek atzo goizean, Bergarako Ubera auzoan. Ertzaintzak emandako datuen arabera, gertakaria 09:15ak aldera gertatu zen. Horren berri jaso ostean, Ertzaintzaren patruila bat gerturatu zen Uberara eta beraiek arduratu ziren sua itzaltzeaz. Jasotako informazioaren arabera, ez zen kalte larririk izan eta sutea amatzeko ez zen beharrezkoa izan suhiltzaileen laguntza. Alboko irudian, erretako edukiontzia.



GOENKARIA

EGURALDIA

## Elurraren aurkako protokoloa gertu dute

M.B. > OÑATI  
Gipuzkoako Foru Aldundiak gertu ditu negurako bide zaintzako neurriak. Hala, elurra egiten duenerako, elurra kentzeko kamioiak, xaflak eta gatza gertu ditu. Ibarreko errepideak garbitzeko zazpi talde aurreikusi ditu Foru Aldundiak.

Urola eta Deba ibarrak biltzen dituen eremurako gatz biltegia Elorregin dago. Guztira, 1.000 tona gatz dago han. Ibarreko errepide nagusienak garbitzeko zazpi talde zehaztu dituzte: Deskargan hiru, Arlabanen bi, eta Leintz-Gatzagan eta Elgetan, talde bana. AP-1 autobideari dago kionez, gatz biltegia Bergaran egongo da.

ZINEMA ETA HISTORIA

## Film emanaldia bihar Kulturaten

E.M. > ARRASATE  
Historia zinemaren bidez izenburuko jardunaldiak jarraituz, bihar, martitzena, *Erresumako piztia* film emanaldia izango da Kulturaten, 18:00etan. Erdi Aroan koka-tuta dago aipatutako filma. Bruno monarkak duen erreinua txiki-txiki eginda uzten diharduen piztia baten istoria kontatzen du.

**EHU-REKIN ELKARLANEAN**  
Arizmendi Ikastolak Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntza izan du *Historia zinemaren bidez* jardunaldiak antolatzeko orduan. Hilaren 29an, *Kermesse heroikoa* eskainiko dute, Alberto Angulo hizlari dela.

Urtarrilak 21a:  
158. zozketa

ASTELEHENeko GOENKARIA  
Harpidedunen

**txokoa**

Saridunak

- Kamiseta bat.  
- Jose Ramon Calleja Mauleon (Arrasate)  
Realeko txaleko bat.  
- Mari Jose Guridi Igartua (Oñati)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

159. zozketako saria



CASIO Power Graphic kalkulagailu bat

Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:  
**943 08 10 50**  
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:  
**38 euro**  
2008ko urteko kuota

**Goenkaria**  
astelehenenak, aste bukaera osoa

**Zorionak irabazoleoi!**  
Gaur, urtarrilak 21, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan dotoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
ASTELEHENeko GOENKARIKO harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazoleetako bat!**

Espaniako Gobernuko Etxebitzta ministro Carmen Chacónnek eta arlo horretako Eusko

Jaurlaritzako sailburu Javier Madrazok berretsitako hitzarmenari esker, EAeko gazteek

oinarrizko emantzipazio erren-tajasotzeko aukera dute. Errenta eskatzeko inprimakiak Arra-

sateko Gazte Informazio Bulegoan eta Bizilagun zerbitzuaren bulegoan eskuratu daitezke.

Dorleta Kortazar > Gazte Bulegoko arduraduna

# "Gazteen artean alokairua bultzatu nahi da emantzipazio errentarekin"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Alokairuari aurre egiteko emantzipazio errenta jasotzeko eskubidea dute gazteek. Hileroko dirua jasotzeko bete beharreko baldintzak, eta jarraituko beharreko pausuak ezagutzeo, Arrasateko Gazte Bulegoko arduradun Dorleta Kortazarrekin hitz egin dugu.

**Hasteko, azaldu zer den emantzipazio errenta.**

Gazteek hain kasa bizitzeko dituzten arazoei aurre egiteko asmoz Espaniako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak berretsi duten hitzarmena da. Hala, etxebizitzat bat erosteko arazoak dituzten gazteei, gutxienez alokairua ordaintzen laguntzeko errenta ematen zaie.

**Zein da lagunza honekin lortu nahi den helburu nagusina?**

Emantzipazio errentarekin alokairua bultzatu nahi da; hala, etxe erosi barik gazteen artean alokairurako kultura zabaldu nahi da.

Era berean, alokairuaren aldeko kultura zabaldu nahi da jabeen artean. Hartarako, Bizi-gune programa dago. Ea guztion artean alokairuaren aldeko apustua egiten dugun.

**Errenta lortu nahi duen gazte batek, zer egin behar du?**

Hasteko aipatu nahi nuke, emantzipazio errenta lortzeko inprimakiak Arrasaten bertan bete daitezkeela: Gazte Bulegoan eta Bizilagun zerbitzuaren bulegoan. Hala, ez dago Donostia, Bilbao edo Gasteizera joan beharrik.

Gure bulegora datorren gazteari azaltzen diogu zertarako den lagunza, eta zein kontzep-tuengatik eskuratu daitekeen. Emantzipazio errenta alokairua ordaintzeko izan daiteke; bada, alokairuko hasierako fidantza ordaintzeko lagunza ere izan daiteke, edo abala ordaintzeko lagunza. Era berean, inprimakia nola bete azaltzen dugu, eta aurkeztu behar den dokumentazioa non eta nola lortu.

**Bada, badaude beste bide batzuk inprimakiak eskatze-ko.**

Bai. Hainbat webgune daude erabiltzaileen eskura: [www.etxebide.info](http://www.etxebide.info) eta [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net). Era berean, [www.alquilerjoven.es](http://www.alquilerjoven.es) gunea dago. Informazio orokorre-rako telefono zenbaki bat ere badago: 012.



Dorleta Kortazar, Arrasateko Gazte Bulegoan ateratako irudian.

OXEL ARRIETA

**Ze baldintza bete behar dira emantzipazio errenta eskura-tu ahal izateko?**

Eskatzaileak urtean 22.000 euroko edo gutxiagoko diru-sarrera gordinak izan behar ditu. Era berean, hilero, diru sarrera finkoa duela egiaztu behar da. Adinari dagokionean, 22-30 urteko gazteek eskuratu dezakete diru lagunza, 30 urte bete ondo-ren lagunza bertan behera geratuko da-eta. Autonomoek, iker-keta bekadunek, pensionistek eta langabezia prestazioa jasotzen dutenek ere aukera dute lagunza eskatzeko.

**Diru lagunza eskatzeko orduan alokatutako etxea eduki behar dugu?**

Ez da derrigorrezkoa. Diru lagunza eskatzen denetik hiru hilabeteko epea ematen dute etxe topatzeko. Hala, alokairu kontratua aurkezten duzunera-ko, emantzipazio errenta eskuratzeko tramitazio guztia eginda egoten da.

**LAGUNTZA**  
**"Alokairuari aurre egiteko, fidantza ordaintzeko, eta abala ordaintzeko lagunza izan daiteke"**

**BALDINTZAK**  
**"22-30 urteko gazteek eskuratu dezakete emantzipazio errenta; lau urterako errenta izango da"**

**TOKIAK**  
**"Gazte Bulegoan eta Bizilagun zerbitzuan bete daitezke inprimakiak"**

Halaber, partekatutako etxe-an bizi diren lagun guztiek egin behar dute lagunza jasotzeko eskaera. Hala, lagunza eskatzai-le guztien artean banatuko da.

**Zenbateko lagunza izango da?**

Diru lagunza, hilero, 210 eurokoia izango da; eta, gehienez, lau urterako errenta izango da. Epe hori bete aurretik alokairua bukatzen bada, lagunza ere bertan behera geratuko da.

**Inprimakiak bete ondoren, zenbat denbora itxaron behar da erantzuna jaso arte?**

Gazte Bulegoan informazioa ematen dugun arren, inprimakiak, beti Bizilagun zerbitzuan entregatu behar dira. Handik Eusko Jaurlaritzara bideratuko dituzte, eta eskaera egin dutenek baldintza guztiek betetzen badituzte, emandako kontu korrontean sartuko diote dirua.

Normalean, ez da prozesu luzea izaten.

**Urtarrilaren 10ean hasi zinenten zerbitzu honekin. Eskatzaile asko joan da informazio eske?**

Komunikabideetan irakurri dugunez erantzuna nahiko ona izan da, eta gazteak hasi dira informazioa eskatzen. Bada, arazo bat tarteko, EAEn beranduago zabaldu dute eskaera egiteko epea. Hortaz, zerbitzua zabaldu berri dugu; edozelan ere, gazte batzuk etorri dira informazio eskatzeria.

**Emantzipazio errenta eskatze-ko eperik badago?**

Printzipioz ez, halako erabakiak ez dira egun batetik bestera aldatzten.

**Bukatzeko, ezer gaineratu nahiko zenuke?**

Gaua bat argitu nahiko nuke: diru lagunza eskatzeko, bakoitza ordaintzen duen alokairuan ez da gutxieneko kopururik zehaztu. 22-30 urteko guztiek dute lagunza eskatzeko eskubidea.

## oharrak eta deialdiak

ELGETA

### > Podologo zerbitzua izango da eguneean

Podologoaren kon-tsulta egongo da hilaren 24an, eguna. Interesa dutenek Nati Arrietari deitu behar diote (943 76 80 77).

ARRASATE

### > Emakumeendako ikastaroak antolatu dituzte

Martxora bitartean, hainbat ikastaro daude Emakume Txokoan: pilates, musikoterapia, zahartzen ikastea, auto-estimua eta hazkunde pertsonala, euskal dan-tzak eta barreterapia. Argibideak, 943 79 41 39 telefono zenbakian.

BERGARA

### > Santa eskean irteteko lehenengo entseguia

Santa Ageda bezperan, kantuan irtengo dira Aranzadi ikastola-ko helduak, eta horretarako lehen entseguia bihar, martitzena, egingo dute, ikastolan, 19:00etan (sarrera, Herri Lagunak kaletik).

ARETXABAleta

### > Gorputzaren musikak tailerra egindo dute

Gorputzaren musikak delako tailerra antolatu du Loramendi elkarteark urtarilaren 31rako. Musikaren laguntzarekin, sentitzeko, pentsatzeko... espazioa irekitzen irakatsiko dute. Izenematea, Loramendi elkartean (943 77 09 70 edo loramenti@topagunea.com).

ANTZUOLA, ARAMAIO  
> Gaur etorriko da KZguneo begiralea

KZguneko dinamizatzailea gaur, asteleherena, egongo da gelan, 09:00etan, Aramaion, eta 11:00etan, Antzuolan. Ikastaroren bat egin nahi duenak bertara joatea besterik ez dauka.

ARRASATE

### > Bi ikastaro antolatu ditu Ekin elkarreak

Eskulan eta orratzlan ikastaroak antolatu ditu Ekin emakume elkarreak. Izena emateko, deitu 943 79 83 70 telefono zenbakira.

ARETXABAleta

### > Kolonbiako sukaldaritzaren gaineakoak

Kolonbiako sukaldaritzita ezagutzeo ikastaroa antolatu du Loramendi euskara elkartearak. Muru Alde elkartean izango da, urtarrilaren 28an, astelehena. Izenematea, Loramendin (943 77 09 70). Doan da.

BERGARA

### > Bizkarrezurraren eta nerbio-sistemaren gaineko hitzaldia egindo du mediku batek

Bizkarrezurra eta nerbio-sistema; gure osasuna berauen araberakoa da izeneko hitzaldia egindo du Andrea Larrañaga mediku bergarrak bihar, Miguel Altunan, 19:00etan. Hainbat ikuspegi landuko ditu: sortzez daukagun adimena; tentsioak eta estresa; bizkarrezurra eta nerbio-sistema; eta gomendioak.

943 25 05 05  
goienkaria@goiiena.com

BERGARA

### > Bertso-afaria egingo dute otsailean

Bertso afaria egingo dute otsailaren 16an, eta sarrerak salgai daude Arranon, Pol-Polen eta Korta-zaharren. Amaia Agirre eta Iker Zubeldia dira gonbidatuak. Artatse elkartean izango da afaria.

ARETXABAleta

### > Aratusteetan makillatzen ikasteko aukera

Aratusteetan zela makillatu irakatsiko dute. Norberak bere mozorroa ekartzea gomendatzen dute. Ikastaroa datorren egunean izango da, eta izenematea zabalik dago Loramendin (943 77 09 70). Doan da.

OÑATI

### > Natur Eskolako irakaslearen hitzaldia

Gure herriko hamaiaka txoko eta istorio dela-ko hitzaldia egingo du Imanol Biain Natur

Eskolako irakasleak egunean, euskaldegian, 18:15ean.

ELGETA

### > Etxeko konponketak egiten ikasteko aukera

Etxeko konponketak egiten ikasteko 40 orduko ikastaroa antolatu du udalak, 25 urtetik gorako elgetarrendako. Martitzen eta eguenetan izango da, 19:00-21:30. Izenematea udaletxean da.

OÑATI

### > Erretiratuak Tolosako Aratusteetara doaz

Pake-Lekuko erretiratuak Tolosako Aratusteetara joango dira otsailaren 5ean. Txartelak salgai daude.

ARRASATE

### > Hainbat ikastaro, Arasate Yoga Elkartean

Tailandiar masajea lantzeko eta norbera ezagutzeo taldeak osatzen dei egin dute. Horien gaineko argibideetako, deitu 616 96 57 95 zenbakira. Gainera, yoga eta pilates ere emango dute, hasiberriendako. Horien gaineko informazioako, deitu 636 38 60 66, 9443 79 66 98 edo 943 79 35 76 telefonoetara.

ARRASATE

### > Hasi dira urteko kuota kobratzen Abaroa

Martxoaren 14ra arte dago zabalik Abaroako baziakide kuota ordaintze-ko epea. 6 euro da, eta ekintzetan parte hartze-ko beharrezko da.

## etxeko leihotik



Edu Mendibil

ASTELEHENeko GOIENKARIAko erredaktore burua

## Telebistaren zain, irrati egunak realzaleontzat

**D**ia de transistores ziren garai bateko domekak, telebistak futbola erabat kolonizatu baino lehen. Bigarren mailara jaitsi ondoren, realzaleok iraganera egin dugu jauzia, eta zenbait partidu irratitik baino jarraitzea ez dago. Atzo albiste pozgarriak heldu ziren Kordobatik. Han irabaztea lortu duen lehenbiziko taldea da Realta. Gaitzterdi, egunotan talde txuri-urdinak bizi izandako gorabeheren ostean. Iñaki Badiola presidente berriak lehenbailen *izarren ligara* itzuli nahi du, baina hobe izango luke bidean arrioak ez egitea, etxearen behinbehin. Realeko presidenteek zuhur jokatu izan dute, polemikarik piztu eta promesa faltsurik egin gabe. Zaratok ez dio inori mesederik egiten. Lana isilean eta formak zaindutu egiten bada, hobe, benetako protagonistak diren jokalariantzat bereziki.

Kirol lasaiagoa da xakea, zalantzariak ez. Xakeko izar nagusia izan den Bobby Fischer hil zen ostiralean, non eta Islandian. Hantxe eskuratu zuen bere garaipenik entzutesuena, 1972an, Spasskiren aurka, AEB eta Sobiet Batasuna elkarri *xake-matean* ari zirenean. Beste garai batzuk ziren, gerra hotzeko sasoia, irratia... eta espioitzak egunak.

"Realeko presidenteek zuhur jokatu izan dute, polemikarik piztu gabe"

### > Pilotazaleak hase-

**rre.** Bergarako pilotaza-leak haserre daude Aspek alde batera utzi duelako Udal Pilotaleku. Uarkapek ere gutxitan jasotzen ditu profesional mailako partiduak.

**> Belarrezkoa.** Oñatin, Antzuolan eta Bergaran ez daukate belar artifizialeko futbol zelairik. Oñatikoa eta Bergarakoa heltzean daude. Gaztetxoek eskertuko dute. Harrobia lantzea ezinbestekoa da...

## debagoiendarrak kanpoan

Luis Atxa > Gasteiz

## "Gasteiztik gauza asko gustatzen zaizkit; bizimodu ona daukat hemen"

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Jaiotzez soraluzetarra da Luis Atxa, baina, 4 urte zuenean, Arrasatera bizi izatera joan zen familia. Han bizi izan zen Luis gaztarao hasierara arte. Gaur egun, Gasteizen bizi da, baina Arrasatera sarri etortzen da.

Zelan joan zinen Gasteizera bizi izatera?

Lehenengo, ikastera joan nintzen, 18 bat urte nituenean. Izan ere, sukaldaritzak ikasketak egin gura nituen, eta Gasteizen zegoen horretarako aukera handiagoa. Hortaz, Arrasate utzi eta hirira joatea erabaki nuen.

Orduz geroztik bizi zara han?

Ez. 18 urte nituenean, ez nintzen bat-batean joan; lehenengo, ia urtebeteari ibili nin-

tzen lanean, Fagorren, bazi-kidearen seme bainintzen. Gero, soldadutz egitea egokitutu zitzaidan, eta hura bukatu nuenean joan nintzen berriz ere Gasteizera, han nire alorrean lan egiteko aukera gehiago izango nintuelako.

Bada, sukaldari moduan lana topatu nuen hiriburuan, eta hantxe bizi izaten geratzea erabaki nuen. Gaur egun ere, sukaldari gisa dihardut.

Arrasatera zenbatean behin etortzen zara, bada?

Oso sarritan joaten naiz; gehienetan, astean behin, edo hamar edo hamabost eguneean behin... Familiakoak bisitatze-rra joaten naiz, batik bat; gurasoak eta arrebak, besteak beste, Arrasaten dauzkat.



Sukaldari Gasteizen

Arrasaten bizi izan zen umetatik, baina sukaldaritzak ikastera Gasteizera joan zen, eta han geratu zen.

Herriko aspaldiko lagunekin baduzu oraindik harremana?

Ez; 18 urte nituenean, bantuan han lagunak, baina, denborarekin, harremana galdu egin da. Ezagunak-eta badauzkat, baina lagunak Gasteizen dauzkat. Gurasoek edo arrebek Arrasateko kontuak kontatzen dizkida-te, baina eurek aipatzen dizki-daten lagun batzuk ez ditut eza-gutzen.

Gasteizen bizi izatetik zer gus-tatzen zaizu gehien?

Gauza asko. Gustura bizi naiz Gasteizen; bizimodu ona dugu.

Eta Arrasatetik zer edo zer fal-tan igartzen duzu?

Arrasatek ona dauka txikia dela. Tira, Gasteiz ez da hiri handia ere. Arrasatera joaten

naizenean, gustura egoten naiz, baina, gaur egun, ez nuke Gasteiz utziko.

Gasteiz orain boladan dago, Ken Follett-ek katedralaren inguruan liburua idatzi due-la-eta...

Bai, hala da; jende asko etor-ten da katedrala ikustera.

Katedralaz gain, Gasteizera bisitan doanari eta hobeto ezagutu gura duenari zer gomendatuko zenioke?

Paseatzeko oso leku onak daude: Salburuan, Armentian... Ibiltzeko leku politak dira, eta haraxe joatea gomendatuko nioke bisitariari. Museoak ere badaude.

Horrez gain, kalean oso giro ona egoten da.

**kale inuesta****Txotx denboraldia hasi da. Baduzu sagardotegira joateko ohiturarik?**

**Maite Romaratezabala**  
Langilea  
Bergara



**Mª Eugenia Etxezarreta**  
Langilea  
Bergara



**Lucas Diez**  
Erretiratua  
Bergara



**Txema Aragones**  
Langilea  
Bergara

Noizean behin joaten naiz baina ez dut urtero joateko ohitura. Lantegikoekin edo bikotearekin joaten naiz Hernani aldera eta gehienetan autoan, beti dagoelako edaten ez duen norbait taldean.

Bai. Hemengoa naiz baina kanpoan bizi naizne, bisitan natorrenea joaten naiz. Gustuko dut sagardoa eta baita sagardotegiko jatekoa ere. Askotan kanpoan jatea etxeen baino merkeagoa ateratzen da.

Bai, noiz edo noiz lagunekin joaten naiz bazkaltzera kanpora; baina zenbat eta gertuago hobe guretzat, adinean ere gora goza-eta. Gustatzen zait txuleta jatea eta sagardoa edatea lagun artean.

Bai, koadrilakoekin joaten naiz, baina beti gauza bera denez, bi urtean behin joaten gara. Gustuko dut baina nahiago dut aukeran eserita bazkaltzea. Hala ere, joanez gero badakigu hori dela giroa eta ohitura.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> Autoak Ferrerias kalean**

Arrasatear bat honako kexarekin eterri zaigu: "Ferrerias kalean, aldapan batez ere, autoak aparkatuta egoten dira. Kale horretara sar daiteke baina ordu batuetan bakarrik, baina jendeak bertan uzten ditu autoak eta hori ez da bidezkoa".

BERGARA

**> Errepideko irtenguneak Ubera auzoan**

Uberatik aspaldi autoz pasa gabe egon ostean, bertatik igaro den gidari batek zera esan digu: "Abiadura moteltzeko irtenguneak zeuden errepidean eta kendu egin dituzte; irtenguneak dau dela gogorazteko trafiko seinaleak, ordea, bertan daude oraindik. Ez zait gaizki iruditzen auzoa motelago zeharkatzeko horrelako neurriak ipintzea, baina behin kendutakoan seinaleak kentzeaz ere gogora daitezela edo abiadura moteltzeko beste seinale batzuk ipintzea eskatuko nuke".

ARRASATE

**> Zabor poltsak alde zaharreko kaleetan**

Arrasateko alde zaharrean bizi den herriar batek esan digunez, "hainbat bizilagunek zabor poltsak kalean uzten dituzte behar ez den orduetan. Zabor ontzik ez dagoenez, egun eta ordu zehatzetan utzi behar dira poltsak kalean, baina bada jendea ordutegiak errespetatzen ez dituena. Zabor poltsen inguruan txakurrak ibiltzen dira, zabaldu egiten dituzte eta dena kakazten dute".

**usteak uste**

Jon Berezibar

**Gipuzkoako oreka, La Conchan**

**A**ldundiak, ohikoa duten moduan, lurraldea oreka zaindu eta kohesioa bultzatzeko helburu ezin txalogarriagoarekin, beste zerbitzu bat kentzea erabaki du. Aurrerantzean ezingo dira Arrasaten NANak tramatatu. Ezta Eibarren ere. *Zurekin, aurrera* dio Aldundiaren propagandak. *Zurekin, Donostiarra*, esango nuke nik, Gipuzkoako oreka, antza, La Conchan dago-eta, Aldundiaren azterketen arabera eta guztiok (Debagoiendarrak barne) joan beharra daukagu erromes hara, antza. Arrazoi gutxi izan ohi ditugu gipuzkoar sentitzeko gurean eta, orain ematen duenez, Donostiarra, "aurrera", joan behar dugu nortasuna (espainiarra) jasotzen. Donostiarrei dagokienez, ondo pasa dezatela *bixamona* eguna!

**zorroztaila**

Elena Laka

**Publikoa eta pribatua**

"Sare publikoak irakasleek pribatuok baino gehiago irabazten dute eta lan gutxiago egiten dute. Bi sareen arteko alde ekonomikoa urteko 3.000 eurotik gorakoa da. Lan gehiago egiten dute eta gutxiago kobratzen dute. Hori da kontratutako sare pribatuko irakasleei gertatzen zaiona sare publiko lankideen aldean. Konparazio iraingarria? Ez dute horrela ikusten sare publikoetako"

El País, 08-01-19

Sare publiko eta pribatuko beste langile batzuren adibideak: Eskuan duzun astekari hau egiten duten langileak ez dira sare publikoak. Herrigintzatik sortu den empresa baten baitan daude, informazioaren zerbitzu publikoa dute helburu. Eta ziur naiz sare publiko informazio-empresako langileek baino soldata txikiagoa dutela. Hala ere, beraien lanari esker, bailarako herritarrok astehenero astekari hau irakurtzen dugu, urtean 38 euro ordaintzearen truke. Ostiraletako aldizkaria, telebista eta irratiak ere badauzkagu, horiek dohainik. Zerbitzuak merezi du laguntza publikoa, zeren mende berriaren hasiera honetan inork jada ezin du Debagoiena pertsatua Goienak ematen duen zerbitzua kontutan izateke.

Aurrelik euskara elkarrekin izan ziren, herritar talde baten ekinetari eta lanari esker garatutakoak. Elkarteok, baliabide propioak sortu behar izan baditzute ere, diru eta lokal publikoari esker egiten dute aurrera. Hemen ere, langileek sare publikoak baino merkeago. Ematen duten zerbitzua, publikoa, euskalduntzekoa, aisiaidikoa, komunikaziokoak. Egun ez da zalantzan ipintzen baliabide publikoekin lagundu behar guztien onurarako lanean dihardutenik.

Elkarteen aintzinatik, herrigintzak herritarrei euskara irakasteari ekin zion, euskaltegiak izan ziren. Erakunde publikoak bereganatu zuen gero lan hau, HABE eta udal euskaltegiak sortu zituen. Berriro ere, sare publikoko langileen lan orduak pribatukoena baino merkeago. Hogeitamar urte beranduago, Euskal Herri osoak, erakunde publiko zein pribatuk, hunkituta ekiten dio korrika egiteari, euskarari eta herrigintzatikoari laguntzeko.

Publikoa eta pribatua bi norantzetako bidea baita. Titularitasun publikoaren eta pribatuaren artean zedarri zeharkaezina finkatzea interes artifizialeko da herrirentzako zerbitzuaz dihardugunean, are gehiago herritik sortutako ekimenez ari garenean. Makurra deritzot zubi bariko lubakiak eraikitzeari, modu horretan helburua ez delako zerbitzu publikoaren alde egitea, norberaren interes partikularren alde, besterenen kontra egitea baino, denon kalterako.

**"Inork jada ezin du Debagoiena pentstu Goienak ematen duen zerbitzua kontutan izateke"**

**"Makurra deritzot zubi bariko lubakiak eraikitzeari"**

**Goienkaria**

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendaritza nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarrate Erradaktore burua Edu Mendibil Erradakzioa Irati Agirreazalegi, Julen Iriondo eta Jon Berezibar Oinarritzko diseinua Goi Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarrate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaiztaran

EGOITZA NAGUSIA  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordialua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**  
Eroskik Arrasateko merkataritza gunea handitu gura du > **10**



> **BERGARA**  
Belar artifizialeko futbol zelaia egingo dute Irintzen > **11**



> **OÑATI**  
Auto karabanan bilkura egingo dute Oñatin aste bukaeran > **12**

ARRASATE > EMAKUMEENDAKO JABETZE ESKOLA

## "Herriko eremu denetan emakumeen parte hartzea bultzatu nahi dugu"

### HELBURUA

Ikastaroen helburu nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna da

### IKASTAROAK

Lidergoa, irratia, historia eta amatasuna izango dira ikastaroetako gaiak

### IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Gipuzkoan lau herrik elkarlanean abian ipinitako ekimena da Emakumeen Jabetze Eskola. Herri horietako bat da Arrasate eta Emakume Txokoaren bitartez hainbat ikastaro antolatu ditu otsailetik ekainera bitartean egingo direnak.

Emakume Txokoko Esther Lizarraldeko azaldu digu ikastaroen helburua: "Emakume Txokoan egiten dihardugun ekimenen eta ikastaroen helburu nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna da. Batzuetan emakumeen ongizatea edo laguntza helburu duten ikastaroak bideratzen ditugu; badira heziketaren gaineko beste ikastaro batzuek ere... Izan ere, ditugun arazoak askotan ez dira pertsonalak sozialak edo kulturalak baizik. Horretarako ahalbideratzen dugu emakumeen heziketa, ongizatea eta euren arteko komunikazioa, pentsatzen dugulako emakumea gizarte honetan oraindik atzetik doala eta hori sainetsu beharra dagoela. Proiektu hau helburu berarekin sortu dugu".

### EMAKUMEEN PARTEHARTZEA

Hortaz, ikastaroak egiten ditutte emakumeak gaitasunetan trebatzeko edo ditutzten gaitasunak garatzeko. "Emakumeek daukaten boterea, sozialki ukau zaie na, berreskuratu eta horrekin emakumeak bultzatu nahi ditugu herriko eremu guztietan gero eta gehiago parte hartzera", esan digu Esther Lizarraldeko.



EMAKUME TXOKOA Esther Lizarralde ikastaroetan parte hartu nahi dutenei Emakume Txokoan emango dizkie argibideak.

IKER BARANDIARAN

### LIDERGOA ETA ELKARLANA

Jabetze Eskola irailean abiarazi zuten eta saiatu dira ikasturtean barrena lerro edo nolabaiteko norabide bat markatzen. "Aurreko hiruhilabetekoan egin genuen ikastaro bat jende aurrean nola hitz egin ikasteko eta hori osatzeko urte berrirako *Lidergoa eta elkarlana* izenburupean beste ikastaro bat gertatu dugu", azaldu digu Esther Lizarraldeko.

Gaineratu digu, "Aurrekoaren osagarri den arren, ez dago zuzenduta lehen ikastaroa egin zutenei bakarrik". Otsailaren 4tik, astelehenero 17:00etik 19:00etara izango da ikastaroa. Indartu nahi dituzte lantaldetako liderraren egitekoak garatzeko trebata sunak. Lidergo eta koordinazio lanen zaittasunak, zuzentzeko estiloak, pertsonen arteko komunikazioa, lantalddea eta elkarlana, lan bilerak, negoziazioa, erabakiak hartza... landuko dituzte.

### > IZENA EMATEA

Urtarrilaren 21etik 31ra arte. Astelehenetik egunera: 15:00-19:00 Egubakoitzetan: 10:00-14:00.

### > Matrikula

Emakume Txokoan egin behar da eta plaza mugatuak dira.

### > ORDAINKETA

Emakume Txokoan eskura daiteke kontu zenbakia. Baja emanez gero, ez da dirua itzuliko.

### > KREDITUAK

Huizezko Iku-Entzunezko Komunikazio eta Irakasle Ikasketetako ikasleek aukera askeko kredituak eskura ditzakete.

### > HAURTZAINDEGIA

Aurrez abisatuz gero, parte hartzaileen umeak zaintzeko zerbitzua eskainiko dute.

### KOMUNIKAZIOA

Beste ikastaro bat blogen eta komunikazio digitalaren gainezkoa izan zen eta orain antolatu duten *Emakumeen ahotsak irratian* ikastaroarekin, komunikazioaren arloa landu nahi dute. "Emakumeak komunikabide mota ezberdinatetan trebatu nahi ditugu euren ahotsak, iritziak eta proposamenak hedat ditzaten", dio Esther Lizarraldeko. Jone Bereziartuak emango du ikastaroa martxitzetan 18:00etatik 20:00etara bitartean. Aztertuko dituzte hedabideen komunikazio balioa eta parte hartzera aukearak. Gero, modu praktikoan saio batzen gidoia egin, irratsaio bat grabatu eta emititzea da asmoa.

Beste bi ikastaro ere antolatu ditutzte osagarri modura. Emakumearen historia berreskurtzeari buruzkoa Llum Quiñonez rok emango du, maiatzaren 23an eta 24an; eta Norma Vazquezek

apirilaren 25ean eta 26an amatasunari buruz emango duena bestea. Lizarraldeko esan digunez, "ikusten dugu emakumearen rola amatasunari lotzen zaiola oraindik neurri handi batean".

Lau ikastaroez gain, irailean abiatutako literatura ikastaroa ekainera arte luzatuko dute eta orain arteko talde berak jarraituko du. Emakume Txokotik esan digute jendea gustura dagoela.

### PARTA HARTZERA ANIMATU

Orain arteko jendearen parte-hartztea oso ona izan da antolatzaileen esanetan: "Talde bakoi-teen 10-12 lagun izan dira eta animatu nahi genitzke emakumeak hurrengoetan ere parte hartzera. Oso aukera polita da eta horrelako ikastaroak ez dira erraz aurkitzen. Gainera tresna garrantzitsuak dira emakumeen jabetzako eta esparru ezberdinatetan trebatzeko".

**EROSKI** > 20 DENDA, PARKING HANDIAGOA ETA LEKU GEHIAGO IZANGO LUKE

# Gunea handitu gura dute 7.000 metro koadrotan

Alkatetzaren oniritziaren zain dago proiektua orain. Ibai Artekoek, hala ere, diote Jaurlaritzak zehaztutako mugak gainditzen dituela

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE  
Dendarien elkartekoak ez daude batere ados Eroski supermerkatu sarearen asmo berriekin. Eroskik egungo zentroa 7.000 metro koadro zabaldu gura du, 20 dendarendako lekuarekin, parking handiagoarekin, eta, oro har, espazio gehiagorekin. Ibaiartekoek diote Jaurlaritzaren Lurraldearen Arloko Planaren legearen aurka doala egitasmoa. Lege horren arabera, Arrasateren kasuan 13.000 metro koadroko azaleran dago muga merkataritza zentroendako. Lege hori, lurraldean arteko orea ziurtatzeko helburuarekin, 2005koa da eta udalei bi urteko epea utzi zitzaien neurri berrira egokitu zitezen.

Hala, Ibai Artetik salatzen dutena zera da: Arrasateko Udalak tarte horretan ez duela "ezer" egin. Jesus Mari Elkorok, Ibai Arteko kideak, agertzen duenez, bere garaian ez moldatzeagatik "datoz egungo arazoak". Ibai Artetik eskatzen dutena da Udalak lege hori errespeta dezala eta



EROSKI Arrasateko merkataritza gunea handitu gura du. JOSETXO ARANTZABAL

Jaurlaritzak, bere aldetik, betearazi dezala. Bestalde, Eroskik, euren proiektua legezkoa dela esateko erabilten duen argudioa da, Jaurlaritzaren Lurraldearen Arloko Planak zehazten dueña dagoeneko eraikita eta martxan den merkataritza zentro bat udalerri bakoitzeko hirigintza planak ezartzen duen mugara arte handitu daitekeela. Arrasateren kasuan muga hori 28.000 metro koadroko dela argudiatzen dute eta diote 2002tik dabilzala Udalarekin elkarlanean.

**LIZENTZIA ESKATUTA**  
Eroskik, lizentzia, hala ere, aurten martxoan eskatu du Udalaren. Hala baiezatu du Ino Gal-

parso alkateak. Aitatutako handitze plana, beraz, lizentzia fasean dago orain, "alkatetzaren oniritziaren zain". Merkatarien eskakizunee dagokienez, Galparsorok dio "baimena eman aurretitik Ibai Arteren alegazioa aztertuko" dutela.

Era berean, Lurraldearen Arloko Plana eta herriko plan orokorraren mugak bat ez etorzearen auziaren inguruan ere azalpenak eman ditu alkateak: "Jaurlaritzak eta dagokien era-kundeek aztertu beharko dute ea akatsik egon den", dio. Izan ere, Herriko Plan Orokorra 2005eko ekainean onartu zuen Jaurlaritzak eta Diputazioak, berriz, urte bereko abuztuan.

**UDALA** > SOZIALISTEN SALAKETA

# Boikota Udalari ez ote den dio alkateak

Gartzia "martxoko hauteskundeetara begira" dagoela eta haren proposamena aztertu zutela azaldu du Ino Galparsorok

**J.B. > ARRASATE**  
Paco Gartzia, sozialisten buruak, Zerbitzu Batzordea utzi egin du, dioenez, kale garbiketari buruzko bere proposamen bat aztertu ez zutelako. Esan du "boikota" egiten dietela sozialistei eta gainontzeko alderdiak EAren "txotxongiloak" direla. Hark esandako aurka, proposamena aztertu egin zutela ziuratzen du alkateak eta, hala, "alderdikideek ikusi zuten proposamena, ez zela egokia".

Sozialistek nahi zituzten zigorrrekin bat ez zetozela azaldu du Galparsorok eta "orain arteko planteamenduekin jarraitzea" erabaki zutela, "nahiz eta hobetu beharreko gaia" dela onartu. "Boikotari" dagokionez, dio ea ez ote dabilen "PSE boikota egiten Udalaren martxari ze bestela ezin da Gartziaaren jarrafa justifikatu". Galparsorok zera dio bukatzeko: "Martxoko hauteskundeei begirako estrategia da".

**PP ERE SOZIALISTEN AURKA**  
Itziar Lamaraineak, PPko zinegotziak, prentsa ohar baten bidez esan du "maltzurki" dabilera "gezurretan" eta bere "egin-kizunen utzikeria egiten" dueña. Lamaraineak azaltzen duenez, "koalizioan gobernuan egon zenean ere ez zuen ordenantzarik egin".

## AZPIEGITURAK

### Lehiaketara atera dute Zerrajerako urbanizatzea

Zoladura, errepide berria eta parking berri bat egin beharko dituze

**J.B. > ARRASATE**  
Zerrajera guneko etxebizitzeko urbanizazio lanak lehiaketara atera ditu Udalak. Azpiegituren ornidura, erre-karen ubidearen berritza, jolasguneak jasotza eta lan orokorrak dira egin beharko direnak. Bi, hiru eta laugarren faseei dagozkien lanak dira horiek eta 60.000 metro koadro inguru dira urbanizatu beharrekoak, 6,1 milioi euro pasatxoko aurrekontuarekin. Lehen faseko lanei dagokienez, Jaurlaritzak erakitzetan dabilen babes ofizialeko etxe multzoa bukatzean dago, hain zuzen.

**ERREPIDE BERRIA**  
Azaldutako lanez gain, Zerrajera atzetik saihesbidearen malda azpian errepide berria ere egin beharko da. Bide horrek lotuko ditu San Andreastik datorren bidea eta Zerrajera gunea. Horrez gain, bidegorria ere izango du errepidea eta, ospitalea aldamenean dagoenez, anbulantziendako aparkalekua ere egin beharko da.

**> OSOKO BILKURA**  
**Eguenean jorratuko dituzte aurrekontuak osoko berezian**

Osoko bilkura berezia egingo dute egunean. Urtarrileko pleno berezi horretan Gobernuak aurrekontuak aurkeztu eta aztertu ostean, haien onartu edo ez bozkatuko dute. Ohi moduan, arratsaldeko 19:30ean izango da batzarra udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

**> ELKARTASUNA**  
**Dirua batzen jarraitzen du NUBIk sahararrendako**

Gabonetako kanpainarekin amaitu badute ere, Sahararrendako dirua biltzen jarraitzen dute NUBI elkartekoek. Horretarako, bi kontu korronte daude: Caixan (210019 72 05 01 00226062) eta Euskadiko Kutxan, (3035 0001 51 0010097799). Jakiak batzeko kanpaina asteon amaitzen da.

**> HEZKUNTZA**  
**Helduen Heziketa Zentroko izenematea irekiko dute**

Astelehenean irekiko dute Helduen Heziketa Zentroko eskoletarako izenematea epea. Ohi bezala, eguneko eta gau-eskoletarako aukera egongo da. Eskola graduatua, unibertsitaterako sarbidea eta hizkuntza eskolak eskainiko dituzte aurten ere; bai euskaraz zein gaztelaniaz.



Hileko lehen zapataun ekin zioten Txatxilipurdikoek ludoteka ibiltariari San Andresen bertan eta oraingo astean eta datozen hiruretan ere han egongo dira, Bedoñabe eskolan.

Ariane Alberdi begiralearen gidaritzapean helburu heztaileak dauzkaten saioak egiten dituzte ludoteka ibiltarian. Joan zen astean kulturartekotasuna jorratu zuten eta zapataun elikadura izan zen jolasekin eta eskulanekin landutako gaia.

## San Andreseko txikienden txanda, zapatauan

AZPIEGITURAK > KIROL INSTALAKUNTZAK

# Belar artifizialeko futbol zelaia egingo du Udalak Ipintza gunean

Futbol taldeek duten azpiegitura gabeziari eman nahi diote irteera. Aldundiak 400.000 eurorekin lagundu du proiektua

Bestalde, Agorrosingo kanpoko zelaian umeendako igerilekua ere egingo dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA  
Udala Agorrosin inguruneari dagozkion bi aukera aztertzen ari da: bata, Ipintzan belar artifizialeko futbol zelaia egitea; bestea, igerikeluko kanpoko zelaian umeendako igerilekua egitea.

Ipintzako futbol zelai artifizialari dagokionez, gaur egun arezko dagoen lekuaren egin nahi dute. Martin Etxeberria Kirol zinegotziak azaldu duenez, Alvaro Perez de Amezaga arkitektoak 2002. urtean Agorrosin ingurune guztirako proiektua egin zuenean, aurreikusi zuen Ipintzan belar artifizialdun futbol zelaia egitea, eta hain justu, Perez de Amezagaren proiektua hartu dute oinarri egin nahi duten zelai-rako. Baina eguneratzeko eskatu diote arkitektoari, Etxeberriaren esanetan: "Eskatu diogu 2002ko proiektua gaur eguneko prezioetara egokitzea. Urte hartan 900.000 euro inguru zen aurrekontua eta gaur egungoa jakin nahi dugu".

Kopuru horri aurre egiteko diru laguntzak ere badirela aurreratu du Kirol zinegotziak: "Dagoneko egin dugu berba Iñaki Ugarteburu Gipuzkoako Foru Aldundiako Kirol Zuzendarriarekin eta esan digu halako zelaietarako 400.000 euroko laguntza ematen duela diputazioak. Gipuzkoan, laudea bost udalerri baino ez gara



IPINTZA Gaur egungo arezko futbol zelaia gainean egingo dute belar artifizialduna.

JOSETXO ARANTZABAL

geratzen belar artifizialeko zelaia egin barik gaudenak, besteak beste Oñati, Antzuola, Soraluze, eta gu geu". Hala, Perez de Amezagak proiektu eguneratua entregatzeko zain daude. Aldundiak diru laguntzaren eskaria egiteko.

Ipintza futbol zelaiarekin futbol taldeek duten azpiegitura gabeziari irtenbidea emango zaio nabarmendu du Etxeberriak. Horren haritik, Bergara Kirol Elkarreak Agorrosin futbol zelaia Udalari zeditzearen gaia "impas" batean dagoela aurreratu du "egin beharreko lanak oso garestiak direlako eta gaur egun Udalak ez duelako horri aurre egiteko ahalmenik".

## ALDAAGELA BERRIAK

Aldagela berriak egiteko aurrekontua ere eskatu dutela aurreratu du Kirol zinegotziak. Bi aurrekontu: "bata, behin behineko aldagelak egiteko, prefabricatuak; besteak, behin betirako aldagelak egiteko, etorkizunean Agorrosin futbol zelaia egokituko balitz han integratzeko". Zelaiaren beste aldean, oraingoen parean egingo dituzte.

## KANPOAN IGERILEKUA

Beste berrikuntza nabarmen bat ere badute Udal agintariek Agorrosin Ekintza Gunearen harira. Hain justu, kanpoko zelaian igerilekua egingo dutela aurreratu

du Etxeberria Kirol zinegotziak: "Batik bat, udarako, umeen aisiaaldia aintzat hartuta hartu dugu erabaki hau", azaldu du.

Horretarako ere Alvaro Perez de Amezaga arkitektoak 2002an egindako proiektua hartu dute oinarri moduan. Perez de Amezagak egindako proiektuak kanpoan igerilekua aurreikusten zuen, nahiz eta aurreko legealdiak ideia hori baztertu eta soilik estalitako igerileku bi egitea erabaki zuen. Udal gobernu berriak, berriz, uste du kanpoko igerilekua irtenbide ona dela umeek udan lasai jolas egiteko, barruko igerilekura gurasoen laguntzaren joan-etorrian ibili barik.

Hala, Ipintzako futbol zelaiarekin bezala, kanpoko igerilekuaren kasuan ere 2002 urtean egindako proiektua eguneratzeko eskatu diote Perez de Amezagari. "Proiektuari hainbat egokitzapen egitea eskatu diogu", azaldu du Etxeberriak "ba i proiektuak aurreikusten zituen hainbat elementuren gainean, zein aurrekontuaren gainean. Azken horri dagokionez, Perez de Amezagak ez digu oraindik kopururik aurreratu", gehitu du.

Horrek guztiarekin kanpoko igerilekua egiteko lanak urrian hasiko direla gehitu du, udako denboraldia bukatu bezain laster.

> HEZKUNTZA  
**Santa Eskean arituko  
dira Aranzadi  
Ikastolakoak**

Aranzadi Ikastolako nagusiek –guraso, irakasle, ikasle ohi, ikastola zale...– Santa Agueda bezperan kantura ateratzeko lehenengo entsegua bihar, martitzena, egingo dute. Plazako eraikinean izango da, 19:00etan – sarrera Herri Lagunak kaletik-. Abesteko eta ondo pasatzeko gogoa duten guztiak daude gonbidatuta entsegura.

> OSASUNA  
**Bizkarrezurraren eta  
nerbio-sistemaren  
gaineko hitzaldia**

Bizkarrezurrak eta nerbio-sistematik gure osasuneari duen garantziaz mintzatuko da Andrea Larrañaga. Bost ataletan banatuko du hitzaldia: sortzetik adimena, tensioak eta estresa, bizkarrezurra eta nerbio-sistema, gomendioak eta eskari eta galderen atala.

Hitzaldia bihar, hilak 22, izango da, 19:00etan, Miguel Altuna institutuko areto nagusian.

> ZOZKETAK  
**Bedelkar elkarreak  
aditzera eman ditu  
zenbaki sarituak**

Dendarien elkarreak astean eman ditu aditzera 600 eta 300 euroko erosketa txartelen zozketako zenbakiak. Alde batetik, 600 euroko bi erosketa txartel zozkatu dituzte Bedelkarreko kideek, eta zenbaki sarituak dira: 4.950 ea 32.971. Bestalde, 300 euroko sei erosketa txartel ere zozkatu dituzte. Zenbaki sarituak dira: 12.643, 28.818, 29.387, 41.437, 52.075 eta 71.805.

> EKITALDIAK  
**Pirritx eta Porrotx  
ikusteko sarrerak bihar  
hasiko dira saltzen**

Bihar, hilak 22, hasiko dira saltzen Pirritx eta Porrotx pailazoek otsailaren 2an egingo duten emanaldia ikustera joateko sarretek. Bihar, etzi eta etzidamu egoengo dira eskuragarri, 17:00-20:30 ordutegian, Udal Pilotalekuko leihatilan. Sarrerak lau eurotan egongo dira eskuragarri eta pertsona bakoitzak, gehienez, sei eroosi ahal izango diru.

> ZIKLOTURISMOA  
**Zikloturistek zabalik  
dute lizenziak  
berritzeko epea**

Bergarako Zikloturista Taldeak abian jarri du 2008ko lizenziak berritzeko kanpaina. Horretarako, Kutxako 21010070810006752612 kontu korrontean 92 euro sartu eta ordainagiria I-2 edo Igartua biziak dendetan entregatu behar da. Otsailaren 29a da lizenziak berritzeko azken eguna. Informazio gehiago biziak dendetan eska daiteke.

MOTORRA &gt; AUTO KARABANAK

# Auto karabanan bilkura egingo dute aste buruan

Sorbeltz Elkarteak urteko batzar arrunta egingo du Oñatin, zapatuan; halaber, hainbat irteera antolatu dituzte aste bukaerarako

**MIREIA BIKUÑA > OÑATI**  
Sorbeltz Auto karabana Erabiltaileen Euskal Elkarteak Oñatin egingo du urteko batzar arrunta, zapatuan, hilaren 26an. Bada, egubakoitzera eta domekarakorako hainbat irteera antolatu ditu.

Sorbeltz Elkarteak baziakideen artean egin duen deialdiaren arabera 45 auto karabana etorriko dira Oñatira, egubakoitz arratsaldean. Ibarra futbol zelaiko aparkalekuaren elkartuko dira.

**BATZARRA ETA BISITAK**  
Zapatuan goizeko bederatzietan bisita gidatua egingo dute Unibertsitatean eta Parrokian; eta, ondoren, kultur etxearen bilduko dira urteko batzarra egiteko. Bilearan, 2007ko balorazioa egingo dute, eta 2008rako planak azalduko dira: irteerak, kontzentrazioak, bilerak...

Zapatua bukatzeako afaria egingo dute Arantzazuko Goiko Benta jatetxeen. Hala, gaua bertran pasako dute; eta domeka goi-



SORBELTZ Argazkian, Santo Domingo de la Calzadara egindako irteera. SORBELTZ

zean Arantzazun egingo dute bisita gidatua, 10:30ean. Frantziskotarrekin bildu ondoren Arrikruztzeko kobak ikusteko aukera izango dute.

**ELKARTEA**  
Sorbeltz elkartea duela urte bete sortutako elkartea da. Auto karabana Erabiltaileen Euskal Elkartearen helburu nagusia auto karabana erabiltaileen eskubidea bermatzea da. Hartarako, urtean zehar hainbat hitzaldi eta bilera

egiten dituzte. Era berean, auto karabana erabiltaileen beharrerarako web gune bat dute: [www.sorbeltz.org](http://www.sorbeltz.org).

Gune honetan, elkartearren inguruko informazioa ematez gain, bigarren eskuko auto karabanan eskaintza dago; Europan dauden aparkalekuuen berri ematen da; eta, ibilgailuan eroan behar den botikina nola antolatu behar den azaltzen da. Era berean, web gunean, Sorbeltz elkarteko baziakide egiteko aukera dago.

IKASTAROAK &gt; INFORMATIKA

# Diruz lagundutako ikastaroak, otsailetik aurrera

Informatika ikastaroak, astero bi egunetan, Ikas Hiru akademian emango dira, otsailetik apirilera arte

**M.B. > OÑATI**  
Udal Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkatariar batzordeak, Ikas Hiru akademian elkarlanean, hainbat informatika ikastaro iragartzen ditu datozen hilabeteetarako. Hala, une honetan zabalik dago izenemate epea Ikas Hiru akademian, 943 78 31 03 telefonoan, urtarrilaren 31 arte.

Otsailean hasi eta apirilera arte emango diren ikastaroak Udalak, diruz lagunduko ditu; eta, astean bi egunetan emango dira.

**OFIMATIKA**  
Otsailean hasita lau ikastaro jarriko dira martxan. Hala, ofimatkako bi ikastaro emango dira: oinarrizko ikastaroa, eta sakontze mailakoa.

Oinarrizko ofimatiaka ikastaroan, Windows XP, Microsoft Word eta Excel landuko dira. Oinarrizko ikastaroaren matrikula 50 euro da. Era berean, oinarrizko ofimatiaka ezagutza duten eta formazioan sakon-

du nahi duten lagunendako, sakontze ikastaroa egingo da. Bertan, Word, Excel, Acces eta Powerpoint landuko dira. Ofimatkako bi ikastaroak 30 ordukoak izango dira, eta matrikula, 50 euro.

## SOFTWARE ETA PHOTOSHOP

Software libreari buruzko oinarrizko ikastaroa, erraza eta praktikoa izango da. Hala, doanezko den software librea erabiliz, testuak idatzi, kalkuluak egin eta aurkezpenak prestatzenten ikasteko aukera egongo da. Software libreko informatika ikastaroa 40 ordukoia izango da, eta matrikula 70 euro ordaindu behar da.

Sakontze mailako Photoshop ikastaroa da Udal Enplegu eta Teknologia departamentuak eskaintzen duen azkena. Irudi digitalen tratamendua lantzeko 30 orduko ikastaroa iragartzen da.

## BESTE IKASTARO BATZUK

Otsailean hasita emango diren ikastaroez gain, enplegu departamentuak aurrera begira beste batzuk aurreikusten dira: sortu eta editatu zure bideoak; etxeko sareak; ordenagailuen mantenu eta konponketa; segurtasuna eta biruskontrakoak; Internet sakontze maila eta grabazioak. Ikastaro hauek apirilekik aurrera emango dira.



ELKAR HEZI

## Baionako eta Oñatiko ikasleen elkar trukea

Duela bi urte Elkar Hezi ikastetxeak Baionako Bernat Etxepare eskolarekin hasitako harremanen ondorioz, ikasleen arteko elkar trukea egin dute. Hala, aste bukaeran, Baionako ikasleak bisitan egon dira Oñatin; herria bera, Arantzazu eta beste hainbat toki ezagu-

tzeko aukera izan dute. Era berean, Elkar Hezikox batxilergoko lehen mailako ikasleak, martxoaren 14, 15 eta 16ko aste bukaeran joango dira Baionara. Elkar trukea Eusko Jaurlaritzaren *Ulibarri* programaren barruan sartzen da.

## INGURUGIROA

# Zaborraren arazoari buruzko erakusketa

**M.B. > OÑATI**

Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen sailak antolatutako *Amets gaiztorik ez!* erakusketa gaur, astelehenan, zabalduko dute Oñatin. Hala, ikusgai egongo da otsailaren 3ra arte.

Kultur etxearen dagoen era-kusketaren helburua guk sortzen dugun hondakinen gainerako hausnarketa egitea da. Era berean, erakusketa bost eduki multzo ezberdinaren banatzen da, eta produkzioaren kantitatea eta kalitatea, tratamendua eta kudeaketa, eta hondakinen sorreraren eta kudeaketaren eboluzio kronologikoa kontutan hartzen da. Etorkizuneko ikuspegia ere azaltzen da.



ARDO DASTATZEA Ardoa dastatzen ikasiko dute otsailean Aretxabaletan.

IMANOL SORIANO

ARETXABAleta > LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA

# Loramendiren eskutik, era askotako ikastaroak

Gorputz musikak, ardo dastatzea eta reflexoterapia ikastaroak daude, besteak beste

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta

Loramendi Euskara Elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu hilabete honetan hasi eta martxora izango direnak. Izen-emeate epea zabalik daude dagoeneko batzuetarako: *Gorputz musikak* tailerra eta ardo dastatze ikastaroa. Sukaldaritzako kolon-

biarrarekin hasiko da egitarauari, hilaren 28an. Hilaren 31n, *Gorputz musikak* tailerra izango da udaletxe zaharrean. Eguenean amaituko da izena emateko epea. Plazak mugatuak dira.

Otsailaren 7an eta 14an fimo ikastaroa izango da; eta otsailaren 8an, 15ean, 22an eta 29an, ardo

dastatze ikastaroa. Otsailaren 1era arte eman daiteke izena. Otsailaren 16an, azkenik, reflexoterapia ikastaroa izango da egun osoz.

SARI BANAKETA EGUBAKOITZEAN

Bestalde, Loramendik antolatutako XIX. eskola arteko literatur lehiaketaren sari banaketa harituko du udaletxe zaharrak egubakoitzean. Ekitaldia 19:00etan hasiko da.

ESKORIATZA



## Merkatarien lehiaketa, Miren Atxagaren dako

Eskoriatzako merkatarien aurtengo Gabonetako lehiaketaren irabazlea Miren Atxaga izan da. Hala, herriko 24 dendatan 1.000 euro gastatu ahal izango du. Horrez gain, afari bat ere irabazi du. Eizmendi gozotegiak banatu du saritutako txartela.

Gozotegi horretara egunero joaten da Atxaga. Sariarekin "pozik" dagoela esan du, "ez zuen-eta horrelakorik espero". Irudian, Miren Atxaga, Eizmendin saria jasotzen ari dela.

JOSETXO ARANZBAL

ARETXABAleta > ARATUSTEAK

## Aratusteetako bazkarirako koadrila koa emango da izena

Aste honetan izena emateko epea zabalduko da, kultur etxean; bazkaria, otsailaren 3an izango da

M.B. > ARETXABAleta

Aratusteak direla-eta, domekan egiten den bazkarian izena emateko arauak aldatu dituzte aurtengo edizioan. Orain arte norberak aurretik erosi behar zuen txartela bazkarira joan ahal izateko. Bada, koadrilek hala esku-tuta, aurtengo Aratusteetan hori aldatzea erabaki berri du Udalak.

Hala, Kultura teknikari Inma Migelek jakinarazi duenez, koadrila apuntatu beharko dira. Alegia, jende kopurua eta koadrilaren izena eman beharko da kultur etxean. Modu horretan, koadrila bateko kide guztiak batera eseri ahal izango dira, leku gordeko da-eta. "Lehen aurretik erosten zuten txartela eta toki jakin

bat gordetzen ez zenez, bazkaltze-ra joaten zirenean koadrilek ez zuten denak batera esertzeko tokirik aurkitzen", azaldu du Inma Migelek.

Izena emateko epea aste honetan bertan zabalduko dela gaineratu du kultura teknikariak. Guztira, 600 pertsonendako tokia egongo da. Aurreko urteetan bezala, kirol etxean egingo da mozorroen bazkaria, otsailaren 3an.

KARTEL LEHIAKETA

Bestalde, Aratusteetako kartel lehiaketa deitu du Udalak aurten lehenengoz. Gaur ezagutuko da irabazlearen izena. Saria 300 eurokoa da.



HERRIKOIA Joan zen urteko bazkaria jende asko izan zen.

GOIENKARIA

ESKORIATZA > GAZTERIA

## Egitaraua zabala dute Tortolis ludotekan eta gaztelekuau

Txikienei ipuin kontaketa eta antzezlana izango dute zapatuan; gaztelekuau, berriz, tailerrak

gozoak prestatzeko. Domekan makillaje tailerrean parte hartze-ko aukera izango dute gazte-ek. Inauterietan prestatzeko ideiak jasoko dituzte han. Eki-men hori 17:00etan hasiko da eta 20:00ak arte luzatuko da.

M.B. > ESKORIATZA

Datorren aste bukaeran hainbat ekimen izango dira Tortolis ludotekan eta Gaztelekuau. Lehenengoa ipuin kontaketa eta antzezlana izango da zapatuan, 11:00etan-13:00etara bitartean. Erleen tribua ipuina kontaketa eta antzeztuko dute ludotekariek. Bazkide diren haurrek parte ahal izango dute horretan. Gurasoendako ere irekia izango da.

Gaztelekuau, berriz, sukaldaritzako tailerra izango dute zapatuan, 17:00etan-20:00etara. Erosketak egin ostean, kultur etxeko sukaldadera joango dira, plater



Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABAleta

ELGETA &gt; NOBLEEN SAN SEBASTIAN KOFRADIA

# XVI. mendetik datorren ohiturari jarraipena emanet 30 bat kofrade elkartu ziren

Kontuak kitatu, meza entzun eta bazkaria egiten dute urtero urtarrilaren 20an

Errege Katolikoek garaitik datorren kofradia da, lurruk defenditzeko egina

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA  
Aurten domekarekin jausi da urtarrilaren 20a eta kofrade asko batu dira urteroko ekitaldirako.

12:00etan elkartu ziren gehienak Elgetako elizan. Hildako kofradeen omenezko meza entzun ostean parrokiako sakristian bildu ziren urteko kontuak kitatzeko. "Kofrade bakoitzak meza bat ordaindu behar du", azaldu du gaur egun idazkari lanak egiten dituen Juan Ramon Irazabal kofradeak. "Elgetan hiru talde daude; Elgeta, Ubera eta Angiozar. Guk Überakoekin batera egiten dugu ospakizuna. Angiozar auzokoek euren aldetik egiten dute".

**SORRERAKO LIBURUA, 1584KOA**  
Elgetako kofradia noiz sortua den ez daki inork zehatz-mehatz. Udal-letxeko txoko batean aurkitzen da sorrerako liburua, baina nahiko hondatuta dago eta ez da erraza



URTEROKO EKITALDIA Elgetako Nobleen San Sebastian Kofradiako kideak atzo, Elgetako elizan.

JOSETXO ARANTZABAL

bertan jasotzen direnak ulertzea. Liburua 1584. urtekoa da eta 1828. urtera arteko aktak jasotzen ditu. "Kofradia, antza denez, lurruk defenditzeko lur jabeek edo nobleek sortutakoa elkartea da", azal-

du du Irazabalek. "Lur horiek defenditzeko Errege Katolikoek armak edukitzeko emandako baimenarekin sortu zen kofradia. Horregatik agertzen da euren ikurra liburu hasieran".

Garai bateko Maala ospitalea eraikitzeo egindako ordainketak ere liburuan agertzen dira. Egungo kofradeak hasierako kofrade horien oinordekoak dira eta emango diote jarraipena.

ANTZUOLA &gt; GAZTETXOKOIA

# Bilera egongo da egunen Gazte Txokoko gazteen gurasoendako

Funtzionamenduaren eta 2008ko asmoen berri emateaz gain, gurasoen ekarpenak jasoko dituzte

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Errekalden dago Gazte Txokoa eta 11 eta 15 urteko herriko gaztetxoek aisiaidiaz modu hezigarrion gozatzea da helburua.

Aurten ere abiarazi dute gaztetxoen proiektua eta hainbat egitasmo gertu dauzkate jadanik; besteak beste tailerrak edo irteerak egitea aurreikusi dute.

Aste bukaera honetan zirkо tailerra egin dute eta monozikloan ibiltzeko zein eskujokoak egiteko aukera izan dute. Bestalde, datorren asteburuan, *Fimo* materialarekin eskulanetan jardun eta bitxiak egingo dituzte.



TAILLERRAK Zirkо tailerra egin dute asteburuan Gazte Txokoan.

JOSETXO ARANTZABAL

**BATZARRA**

Gazte Txokoko jarduerak abian diren arren, datorren egunen 19:00etan batzarra egingo dute. Bestalde, euren iritzia eta ekarpenak jasotzeko baliatuko dute bilera.

Batzarrean gurasoei Gazte Txokoaren funtzionamendua azalduko diete eta baita 2008rako asmoen berri eman ere. Bestalde, euren iritzia eta ekarpenak jasotzeko baliatuko dute bilera.

ARAMAIO

# La Sexta ikusi ahal izateko ahalegina

Gasteizko teknikari batzuekin biltzekoak dira udal arduradunak

**MIREIA BIKUÑA > ARAMAIO**  
Gureiatik seinalea jasotzen duten Aramaioko bizilagunetako batzuek ez dute La Sexta telebista katea ikusten. La Sextarekin lan egiten duen operadorearenak "ez da errentagarria" biztanle gutxi dituzten herriean instalazioa egitea.

Hortaz, Aramaioko Udalak instalazioa bere gain haritzeko aukera aztertzen dihardu. "Aurrekontu batzuk esku tu ditugu", esan digute udal arduradunek, "merkeena 1.000 euroko da, eta garestiena, 10.000 eurokoa. Bada, guk behar dugun lana egiteko aurrekontua zenbatekoa den ikusita erabakiko dugu instalazioa egin edo ez". Datozen egunotan bilera bat egingo dute Gasteizko teknikari batzuekin.

Bestalde, Television Espaňolako lehenengo katea gaizki ikusten zuten Aramaion. Hala, arazoa konpontzeko Itzelazpi operadorearen laguntzarekin, kanal aldaketa egin zuten, 23.tik, 45.era.

LEINTZ GATZAGA &gt; TXABOLEN ARAUDIA

# Onartuta txabolen gaineko araudia

Hainbat puntu aldatu ditu Udalak orain arte zegoen araudian eta herrian bertan dauden ortuetan ere txabolak egin ahal izango dituzte

**MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA**

Azaro inguruan onartu zuen udalbatzak txabola eta estalpeak zela eta non eraiki arautzen duen Udal ordenantza aldatzea. Aldaketok ikusgai jarri zituen orduan gura zuenak aleazioak aurkezteko. Inolako erreklamazio eta iradokizunik ez dute jaso udaletxeen tarte horretan, eta dagoeneko behin betiko onartu dute araudi berria. Hala iragarri zuten egubakoitzeko Gipuzkoako aldizkari ofizialean.


**GUTXIENEKO DISTANTZIARIK EZ**

Aldaketa bakarra egin dute txabolen gaineko araudian, baina garrantzitsua. Izan ere, orain

arte herrian bertan ezin zitekeen txabolarik egin, gutxienez 200 metrora egon behar zuten. Gatzgarren ortu gehienak herri inguruan daudela ikusita eta txaboloak modu txarrean egin ditzaketela herritarrek pentsatuta, arau hori aldatzea erabaki zuten. Hemendik aurreira ez da gutxieneko distantziarik egongo txabola egiteko.

Hala ere, herri barruan txabola egiten dituztenek ondoren baldintza onartu beharko dute: Udalak noizbait lanen bat egiteko -hodiak sartu, kaleak txukundu...- txabola bota beharko balu, kalte ordainik eskatzeko aukerarik ez dute izango.

# Kirola



## > ESKUBALOIA

Festa polita izan zen Oñatin Asobaleko Arrate eta Cai Aragonekin >**16**



## > RUGBIA

Arrasatek alde handiarekin irabazi zion Iruni Mojategin >**19**



## > ELKARRIZKETA

Patxi Mutiloa Aspeko gerentearekin berbetean izan gara >**20**

**FUTBOLA** > DEBAGOIENDARREN ARTEKO DERBIA AZKOAGAINEN

## Aretxabaletak 0 eta 4 jipoitu du Aloña Mendi

Espinosa partidu hasieran gola egin arren, lehen zatian berdintzeke aukerak izan zituen Aloñak

Atsedenaldiaren ostean atzealdean huts ugari egin zituzten etxeekoek, kanpokoei garaipena erratzuz

**JULEN IRIONDO** > OÑATI  
Larregi estea izango da agian debagoiendarren arteko derbia Aretxabaletak irabazi baino gehiago Aloña Mendik galdu zuela. Ez litzateke zilegi Aretxabaletako meritua ez aitorztea, partidua etxeekoek baino hobeto hasi zutelako eta aitzakiarik gabeko gol bat esker aurreratu zirelako; baina, huts egiteko arrisku handirik gabe esan daiteke Aloña Mendik bere akatsengatik –lehenengo zatian erasoan eta bigarrenean defentsan– ez zuela sikiera partidua berdintzeke aukerarik izan, eta jaso zuela jasotako gol sorta.

Partiduan askoz ere sartuago egon zen uneoro Aretxabaleta. Igor Arenazak zuzentzen dituen mutilak etxeokoak baino lehenago iristen ziren baloi guztietara, gehiago egiten zuten jauzi eta eurak egiten ziren aldaratzleen jabe. Aurreneko minutuetatik igartzen zen hori.

Aretxabaletak ondo egin zuen presioa goian, eta Aloña Mendik arazo asko izan zituen baloia ate-ratzeko. Gutxi irauten zien oinetan oñatiarrei, eta kanpokoak egin ziren zelai erdiaren jabe. Laster iritsi ziren aukerak. Aurreneko abisia bederatzigarren minutuan eman zuen Espinosak. Pase luze bat jaso eta indartsu jaurti zuen, kanpora hala ere. Bigarrenean ordea ez zuen hutsegina. Aurrenekoan jaurti beharrean, atzelariari baloia buruz gain pasa eta Oier Zabaleta Aloñako atezainaren aurrean bakarrik zela sareetara bota zuen baloia.



INDARTSU Aretxabaletako jokalarien gogotsu borrokatu zuten baloi bakoitzan.

JOSETXO ARANTZABAL

Handik aurrera etxeekoek izan zituzten euren aukerak, baina antzu aritu ziren ate aurrean –Espinosa bi aukeren artean ere gola egiteko moduan izan zen Camino, baina baloia baino bizkorrago ibili eta bera sartu zen ate barrura-. Idigoras eta Ugarte ere saiatu ziren hegaletatik Aretxabaletari min egiten, baina oñatiarrek huts egiten zuten azken ukituetan, kontroletan, paseetan edo jaurti-

ketetan. Aurreko denboraldira arte Oñatikoaren atezaizan izan zen Jon Ander Elgarrestak ere egin zuen gelditu onen bat. Bitartean, Aretxabaleta zain zegoen aukera ona noiz izan kontraerasoan irteko. Gola sartu ostean horrela egin zuten min gehien kanpokoek.

**HUTSA HUTSAREN ATZETIK**  
Bigarren zatian Aloña Mendi berdinaketa lortzeko asmoz zelairatu

bazen, laster zapuztu zituen Aretxabaletak gorrien asmo on denak. Area barruan denbora eta lekua utzi zioten Oruetari honek Gariaren buruan jarri zezan baloia. Bosgarren minuturako bi goleko aldea zuen Arenazaren taldeak.

Eta Aloña Mendik amore eman zuen. Atzealdean hutsegite handiak egin zituzten etxeekoek, eta horien ondorio izan ziren Aretxabaletaren azken bi golak, eta baita beste hainbat aukera ere. Hiru eta hutsikoa Oruetak egin zuen –12. minutuan– Olalderi baloia harrapatu eta gero, eta laugarrena Erikok –27.ean–, oñatiarrek urrunten asmatu ez zuten baloi bat jasota. Honekin bost partidu galdu ditu jarraian Aloñak.

Eta emaitza gutxi balitz, beste zoritzar bat ere bai. Mikel Korabarriak lehen taldean debuta egin eta zelaian hamar minutu ez zeramatzenean itxura txarreko lesioa egin zuen belaunean.

### ESANAK

**"Partiduan oso sartuta egon gara hasieratik; jokoa azkenaldiko jarrera onaren ondorio da"**

Igor Arenaza >  
Aretxabaletako entrenatzailea

**"Ez dugu beste batzuetako mailarik eman. Gu baino askoz gehiago izan dira bigarren zatian"**

Josu Zubia > Aloña Mendiko entrenatzailea

### emaitzak eta sailkapenak

#### PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Real Union	39	19
2. Trintxerpe	37	19
3. Berio	34	19
4. Ordizia	33	19
5. Aurrera Ondarroa	30	19
6. Mondra	29	19
7. UDA	28	19
8. Euskalduna	27	19
9. Hernani	26	19
10. EHU	23	19
11. Aloña Mendi	23	19
12. Hondarribia	23	19
13. Anaitasuna	22	19
14. Idiazabal	21	19
15. Zestoa	20	19
16. Zumaiako	19	19
17. Touring	17	19
18. Eibartarrak	17	19

#### Emaitzak

Hondarribia-Berio	0-1
Real Union-Ordizia	0-0
EHU-Euskalduna	1-1
Aloña Mendi-Aretxabaleta	0-4
Zestoa-Aurrera Ondarroa	2-0
Idiazabal-Touring	0-1
Anaitasuna-Mondra	1-1
Eibartarrak-Trintxerpe	1-3
Zumaiako-Hernani	1-1

#### Hurrengoak

Hondarribia-Zumaiako	
Berio-Real Union	
Ordizia-EHU	
Euskalduna-Aloña	
Aretxabaleta-Zestoa	
Aurrera Ondarroa-Idiazabal	
Touring-Anaitasuna	
Mondra-Eibartarrak	
Trintxerpe-Hernani	

#### BESTELAKOAK

##### LEHENENGOKO ERREGIONALA

Amaikak Bat-Antzuola	3-3
Bergara-Elgoibar	3-0

##### BIGARREN ERREGIONALA

Mondra-Urkি	3-3
BTLS-UDA	2-1
Gazteak-Elgeta	1-0

##### OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

UDA-Zumaiako	2-0
Bergara-Ordizia	5-2

##### OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Euskalduna-Aloña Mendi	0-1
Mondra-Burumendi	2-0

##### LEHENENGOKO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA

UDA B Arizmendi-Herrera	0-2
-------------------------	-----

##### OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Aloña Mendi-Tolosa	2-1
Zumaiako-Bergara	3-1

##### LEHENENGOKO MAILAKO KADETEAK, IGOERA FASEA

Beti Gazte-Arrasate	2-4
Billabona-UDA B	5-1

##### OHOREZKO INFANTILAK, IGOERA

Añorga-UDA Arizmendi	4-0
Eibar-Bergara	1-0

##### OHOREZKO INFANTILAK, KOPA

Arrasate-Tolosa	1-4
-----------------	-----

##### EMAKUMEZKOAK, IGOERA

BTLS-Añorga	5-0
-------------	-----

LAGUNARTEKO > ASOBAL LIGAKO TALDEAK OÑATIN

# Goi mailako eskubaloiarekin gozatzeko aukera izan zuten Zubikoan bildutakoeik

**ARRATE**  
**30-32**  
**CAI ARAGON**

**Arrate** > Malumbres, Arrieta (2), Ivo Diaz (6), Stefanovic (2), Matovic, Vučinić, Berrios (5), Arroyo (1), Salaberria (3), Carou (1), Kobil (3), Gartate (2) eta Cutura (5).

**Cai Aragon** > Urkola, Garcia, Novella (1), Garcia, Fredrik (3), Sorli (5), Stancovic, Hernandez, Alvarez (3), Rodriguez (9), Carton (3), Krivocapic (4) eta Sorrentino (4).

**Bestelakoak** > Zubikoako harmailak bete egin ziren Asobaleko taldeak ikusteko.

**JULEN IRIONDO** > OÑATI

"Gustura gaude. Ahal dugun tamainan eskubaloia sustatzeko lanean jarraituko dugu", zioen Karmelo Guridi, Aloña Mendiko eskubaloia saileko arduradunak. Arrate eta Cai Aragonen arteko partiduaren amaieran. Festa polita izan zen zapatukoa; taldeek, aurreko egunetan entrenamendu gogorrak eduki eta nazioarteko txapelketak tarteko, jokalari garrantzitsuak falta izan arren,

ondo erantzun zuten; zaleek, zer esanik ez. Zubikoako harmailek duela ez hainbesteko eskubaloia arrats ederretako itxura hartu zuten, kirol honekiko zaletasuna oraindik badela erakutsiz.

#### CAI, BETI AURRETIK

Partidua hasi eta lasterrera egin zuen tarte markagailuan Araogoiko taldeak. Defentsa ona egin zuten kanpotarrek eta, batez ere, kanoaldoetik egindako jaurtiketa indartsuen bitartez zappi golekoa izatera iritsi zen aldea hartu zuten.

Lehenengo zatiaren erditik aurrera, eibartarrek defentsa gogortu –Malumbres atezainak ere gelditu onak egin zituen– eta Caik ohiko jokalariei atseden ematearekin batera, markagailua estutu egin zen; 14 eta 16 zen emaitza atsedenaldean.

Bigarren zatian intentsitate handiagoz jokatu zuten bi taldeek, eta lehia parekatuagoa izan zen. Partidua azken hamar minutuetan zela, Arratek 26na berdin zuen, baina zenbait kontraeraso eta jaurtiketa errazkin Caik erabakita utzi zuen neurketa.



DEFENTSA Aurreneko minutuetan atzean egindako lanarekin bideratu zuten garaipena kanpokoek.

JOSETXO ARANZABAL

Zure Chevrolet Captivak zoriontsu egingo zaitu.  
Horrela ez bada, dirua bueltatuko dizugu.

## CAPTIVA

Chevrolet markako edozein auto erosita, hilabete edo 3.000 kilometro dauzkazu egindako erosketa ona izan dela baieztagoz. Captiva, ondorengo bertsioak: 5 edo 7 jarleku, ESC, iraultzetik babesteko kontrola, balazta-asistenzia, jaitsiera-kontrola, cruise-kontrola, 6 aire-poltsa eta aparkamendu-sentsorea. Bertsioen araberako ekipamendua. Autoarekin gustura ez bazara geratzen, dirua bueltatuko dizugu, eta beste marka bateko autoa erosi nahi baduzu ere bueltatuko dizugu dirua. Chevrolet Captiva, zoruntasunez betea.

#### CAPTIVA

Diesel motorrak: 127 ZP eta 150 ZP  
Gasolina motorrak: 136 ZP eta 230 ZP  
5 urteko bermea  
24.600€-tik aurrera

GEHIAGO DA.



Giauto Eibar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es  
Giauto Olaberria • Karobi Ind. • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es

Kutxa Inbertsio-Irtenbideak

# Gora edo behera egin, zu beti irabazole.

**Eurodolar Gordailu** berriarekin, kapitala bermatzeaz gain, oso errentagarritasun handia lortuko duzulako: **dolarrak euroarekiko birbalioztapenaren %100, edota, bestela, %50 balio galera gertatzu gero\***. Kontrata ezazu **otsailaren 29a baino lehen**.

\*Hasierako erreferentzia Europako Banku Zentralaren 2008ko martxoaren 3ko FIXINGaren balioa izango da, eta amaierakoa, berriz, 2010eko otsailaren 26koa. Gordailuaren epemuga, 2010eko martxoaren 3an gauzatuko da.


Eusko Jaularitzak baimendutako publizitatea, 07/02/07 espediente zk. duna.

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**

# Debagoieneko WEBGUNEAK



## AHOKULARITZAK

**ASEGI**  
www.asegim.com  
**ESTRADOS**  
www.consultoriaestrados.com  
**LIZKER**  
www.lizker.com

## AKADEMIAK BASTIDA

www.bastida.es

## ALTZARIK ETA APAINKETAK BZ SISTEMAS

www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas  
**MARRUBI**  
www.marrubi.com

## ANTZINAKO ALTZARIK ZUMADIA

www.zumadia.com

## ARETOAK 360 ARETOA

www.360aretoa.com

## ARGAZKIAK/ARGAZKILARIK MARIA JESUS

www.mjargazki.com

## AROTZEGIAK ARREGI

www.goiena.net/blogak/arregi  
**AZKARATE**  
www.goiena.net/blogak/azkarate  
**UGARTE**  
www.goiena.net/blogak/ugartearotza

## ARKITEKTURA ESTUDIOA BIARK

www.goiena.net/blogak/biark

## ARRANDEGIAK ITSAS EDER

www.goiena.net/blogak/itxaseder

## ASEGURUAK BRIZ ASEGURUAK

www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak

## LAGUN ARO

www.segurosagunaro.com

## WINTERTHUR

www.axawinterthur.es

## AUTO – KONTZESIONARIOAK 4QUATTRO4

www.4quattro4.com

## BIDAIA AGENTZIAK BARCELO

www.barceloviajes.com

## BITXITEGI TAILERRA OSKAR VITORIA

www.oskarvitoria.com

## EGUZKI OIHALAK TOLDOS LETE

www.toldoslete.com

## ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK ARETXARGI

www.goiena.net/blogak/aretxargi

## GORLA

www.goiena.net/blogak/gorla

## ELEKTRIZITATE MATERIALAK SETALDE

www.setalde.com

## ELKARTEAK

**EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL  
FEDERAZIOA**  
www.goiena.net/blogak/ehmff

## ERAIKUNTZAK CONSTRULAN

www.construlansl.com

## ERROTULOAK

**PANDO**  
www.goiena.net/blogak/pando  
**ROTUDENAK**  
www.rotudenak.com

## ESKULANAK

**IZEDER**  
www.goiena.net/blogak/izeder

## ESTETIKA ZENTROAK

**ANGELA**  
www.angelaestetika.net  
**GUZTIZ EDER**  
www.goiena.net/blogak/gutzizeder

## MAIER

**LILURA**  
www.goiena.net/blogak/lilura  
**MAIER**  
www.goiena.net/blogak/richimaier

## FISIOTERAPIA ZENTROA

**EKIN**  
www.goiena.net/blogak/ekin

## FORMAZIOA

**LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUA**  
www.iisj.es

## GARAJEAK / KONPONKETA

**AMG AUTOAK**  
www.amgautoak.com  
**AUTOS ARETXA**  
www.autosaretxa.com

## AUTOS RIBELOGA

www.autos-ribeloga.com

## GALLASTEGI MOTOR SPORT

www.goiena.net/blogak/gallastegi

## JC RACING

www.goiena.net/blogak/jcrcaling

## GARBIKETAK

**HEMEN**  
www.hemen-garbiketak.com  
**DENETIK GARBITASUN**

## MEKANIZATUA

www.goiena.net/blogak/denetik

## GIMNASIOAK

**IRUDI SPORT**  
www.goiena.net/blogak/irudisport  
**ZAINDUZ**

## GOZOGINTZA EKOLOGIKOA

**ETA INTEGRALA**  
www.goiena.net/blogak/galgorri  
**GALGORRI**

## HARATEGIA

www.goiena.net/blogak/galgorri

## HAUR PARKEAK

**OKIPARK S.L.**

## HESTEBETEAk

**URDEKI**

www.goiena.net/blogak/urdeki

## HIZKUNTZA AKADEMIAK

**MONDRAGON LINGUA**  
www.mondragonlingua.com  
**LA PUERTA AL INGLES**

## HOTELAK

**HOTEL MONDRAGON**  
www.hotelmondragon.com

## IKASTETXEAK

**ARETXABAleta INSTITUTUA**  
www.iaretxabaleta.com  
**ARIZMENDI IKASTOLA**  
www.arizmendi.ikastola.net  
**ELKAR-HEZI IKASTETXA**  
www.elkarhezi.com  
**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**  
www.mondragon.edu

## ILE-APAINDEGIAK

**RICHI**  
www.goiena.net/blogak/richimaier  
**KIZKUR**  
www.kizkur.com

## INDUSTRIA HORNIDURAK

**SUMINISTROS UGARTE**  
www.sumistrosugarte.com

## INFORMATIKA

**DCA COMPANY**  
www.dcacompany.com  
**ARITU**  
www.aritu.com

## INGENIARI GEOLOGIKOA

**HARRILUR**

## INMOBILIARIAK

**ANBOT**

www.inmobarrasate.com

**ARRIETA & SAN MIGUEL**

www.arrietasanmiguel.com

## KOROSTI

www.immokorosti.com

## UDALATX

www.udalatx.com

## INPRIMATEGIA

**EGUZKIGRAF**  
www.goiena.net/blogak/eguzkigraf

## ITURGINTZA ETA BEROGINTZA

**URBIETA**

www.goiena.net/blogak/urbieta

**URKO MANTENIMIENTO, S.L.**

www.goiena.net/blogak/urko

## JANARIAK

**GERTU**

www.goiena.net/blogak/gertu

**ARANTXA PRODUKTU FRESKOAK**

www.goiena.net/blogak/arantxa

## JANTZI DENDAK

**MARKIEGI**  
www.goiena.net/blogak/markiegi

## UDALAITZ

www.goiena.net/blogak/udalaitz

## JATETXEAK

**BASTER ALDE**  
www.baster-aldejatetxea.com

## DRAGON ORIENTAL

www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

## DUKIENA

www.goiena.net/blogak/dukiena

## GOIKO BENTA

www.goikobenta.com

## MAULANDA MERENDERUE

www.goiena.net/blogak/maulanda

## IXAUN

www.goiena.net/blogak/ixaun

## OTZETA

www.goiena.net/blogak/otzeta

## TABERNA BERRI

www.goiena.net/blogak/tabernaberri

## ZUMELAGA

www.zumelaga.com

## OPTIKAK

## MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

www.goiena.net/blogak/multiopticas

## INSTITUTO OPTICO

www.goiena.net/blogak/optico

## OSTALARITZA

www.goiena.net/blogak/ostalaritz

## GARAIA OSTALARITZA

www.goiena.net/blogak/garaia

## ANTONIO BENITO

http://www.antoniobenito.net

## PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA

## FORMAK

www.formak.net

## IPAR PROJECT

www.iparproject.com

## PUBLIZITATE AGENTZIAK

## ADOX

www.adoxnet.com

## AKORT-PUBLICIDAD

www.akort-publicidad.com

## SUKALDERAKO ALTZARIK

## BASTIDA

www.goiena.net/blogak/bastida

## BOLU

www.goiena.net/blogak/bolusukaldeak



NAHI ETA EZIN. Irundarrak hasieran eskuratutako puntuekin geratu ziren partidu osorako.

JOSETXO ARANZABAL

ERRUGBIA > AMAIERAN LEHERRARAZI ZUTEN ETXEKOEK TRAKA

## Amaieran, gurata ere ezin izan zuen Irunek

ARRASATE

43-11

IRUN

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Gogotik eman zieten irundarrei egurra arrasatearrek atzoko neurketan. Bigarren zatian nabitu zen hori gehiago eta parti duaren amaierarako tanto festa izan zen. Ia azkeneko ordu laurdean 29-11tik 43-11ko emaitza erabakigarria jauzia egin zuten etxeekoek. Hamaika zenbakia asko da euskaraz baina ez nahi koa irundarrendako. 11 puntu lortu zituzten lehen zatiko hasie-

ran, eta hortik aurrera, zeuden netan geratu ziren. Partiduaren lehen zatian lortu zituzten irundarrak tanto denak. Lehen zatian arrasatearrei eusteko ahalegin nahikoa egin zuten eta etxeekoek ere kontrakoaren aterantz oldarraldi bakan batzuk besterik ez zituzten egin. Oso bestelakoa izan zen bigarren zatia.

BIGARRENEAN, GELDIEZIN

Lehenengo zatia geldo samar eta 15-11 bukatuta, bigarren zatian poliki-poliki abantaila handia hartzen hasi ziren arrasatearrok. Bigarren zatiari, gainera, animoz berotxo ekin zioten jokalariet. Izan ere, jokoa hasi bezain laster liskar txiki piztu zen jokalarien artean. Tira-bira ez zen

gehiago puztu baina, antza, ordainenetan egur galanta ematen hasi ziren etxeekoek. Batez ere amaiera aldera bizi zuen jokoa Arrasatekoak. Taldea gehiago zabalduz eta joko arinagoarekin impulsua hartu bezain laster lortu zituzten puntuak eta haien atetara gerturatu bezain laster, irundarrak konturatu ziren arriskua itzela zela eta, ziurrenik, barrura joango zirela baloiak. Eta hala izan zen. Ahalegindu arren, amaierarako ezin izan zioten etxeeko bultzadari aurre egin eta igarri zen bukaerarako adorea ere galdua zeukatela. Emaitza politarekin, harmaileta ko jarraitzaileen txalo beroekin joan ziren aldageletara Arrasatekoak; egindako lan onaren jabe.

## Irabazi ez arren pozik itzuli dira Arizmendiko 'erreginak'

Series Colegialaeseiko finalean 65-49 galdu zuten Arizmendi Queensekoek zapatuan Gasteizko San Viatorren aurka. Hala ere, gustura itzuli dira etxera saskiba-loiko *'erreginak'*.

Nahiko pareko egin zuten lehen zatia baina bigarren zatian hasi ziren gauzak okertzen. Baldintza guztiek ere ez omen zituzten alde izan, Gari Ibartzabalek azaltzen duenez. Urduri atera ziren kantxara neskak eta epailearen lana ere ez omen zen txalotzekoa izan.



ARIZMENDI

ESKUBALOIA > SENIOR MAILAKO NESKAK

## Berotu bezain laster, geldiezin jardun zuten

Arerio gogorra eta borrokazalea da San Adrian baina behin aurrea hartuta, gogor eutsi, eta garaipena lortu zuten oñatiarrek zapatuan

VERKOL ALOÑA

21-14

SAN ADRIAN

tzialarekin amaitu zuten lehen zatia. Hortik aurrera, San Adriango piztiak aberetu egin zituzten Oñatioko neskek. Emaitzarekin pozarren zegoen zapatuan Maitane Ruiz Verkoleko jokalaria. "Aurreko asteko emaitzarekin triste gentezen baina jardunaldi honetako ezin hobea izan da", esan zigun Ruizek. Sailkapenean beheko aldean jarraitzen dute oraindik ere oñatiokoek baina zapatuan indar nahi koa hartu zuten gorako maldari gogoz ekiteko. Zapatuan aipagari izan ziren Jone Larrañaga eta Ainhoa Unamuno. Ane Herrero jubenilak ere nagusien artean dohaiak erakusteko aukera izan zuen eta txalotzekoa izan zen haren lana; gainontzeko neske naren moduan.



ANE HERRERO Jubenilak lan txukuna egin zuen nagusiekin.

JOSETXO ARANZABAL

Kirolean ibilbide luzea darama Patxi Mutiloa eibartarrak. Eibar futbol taldean hamalau urte

egin ondoren, Aspe pilotaren presako gerentea da gaur egun. Kirol enpresen errentagarrita-

suna aztergai izan zuen Mutiloak egunean Oñatin. Mondragon Unibertsitateak gonbidatu-

ta, Juan Mari Muruarekin batera, gestio profesionalaren gainerako hitzaldia egin zuen.

**Patxi Mutiloa > Aspeko gerentea**

# "Gaur egun, kirol profesionalak ez du etorkizunik telebistarik gabe"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Azken zortzi urteotan Aspe pilotaren presako gerentea dugu Patxi Mutiloa (Eibar, 1956). Juan Mari Murua Aventoko zuzendaria aspaldiko laguna du eta Mondragon Unibertsitatearen eskutik biak hizlari izan genituen egunean, Eteon. Klubetik enpresara bitarteko jaunzia aztertu zuten biek. Kirol emaitzak eta errentagarritasuna uztaratzeko beharra azpimarratu zuen Mutiloak.

**Kirol emaitza eskasekin zaila da kirol enpresa bat ekonomikoki errentagarria izatea, ala?**

Normalean biak lotuta doaz, baina askotan lehentasuna ematen zaie kirol emaitzei, alderdi ekonomikoari gehiegiz erreparatu gabe; eta horrela gertatzen dira futbolean gertatzen direnak, adibidez. Gaur egun, futbol talde mordo bat dirua galtzen ari dira eta jende batek ez du uleratzen errentagarritasuna funtsezko dela. Ez da logikoa kirol enpresa bat dirua galtzen ibiltzea eta horren ingurukoek (jokalariak, bitartekariak, komunikabideak, eta abar) diru piloa irabaztea. Dagoeneko 15 urte bete dira futbol taldeak elkartea anónimoak bihurtu zirenetik eta banatu dute etekinik akzionisten artean? Zentimorik ere ez. Beste sektore batzutan ezinezko izango zena (ikaragarrizko zuloak diru kontutan) futbolean onartzen da, kasu askotan era-kundeen babesarekin gainera. Baino errentagarritasuna zaintzen ez bada eredu honek ez dauka etorkizunik.

**Kirol enpresen kudeaketan badago jarraitu beharreko eredurik?**

Askotan uste dugu ez dakit nora joan behar garela eredu bila eta zenbaitetan gertuan daukagu. Hor dago pilotaren kasua. Enpresa kontzeptua oso garbia da pilotan, aspalditik gainera. Enpresa txikiak izan arren, erre-kurtsoak ondo kudeatzea erabakigarria da. Ekonomikoki enpresa errentagarriak dira pilotan (bestela ez genuke honetan jarraituko) eta beste edozein jardueratan gertatzen den moduan, ikuslerik ez balitz etorriko frontoietara, seinale txarra litzateke. Zorionez, osasun onean dago pilotak. Kirol profesionalaren lehen helburua errentagarritasuna izan behar da; askotan ez zaio horri duen garrantzia emanen eta hor hasten dira arazoak.



Patxi Mutiloak hitzaldia egin zuen egunean, Eteon.

LARRAITZ ZEBERIO

## ERRENTAGARRITASUNA

**"Kirol enpresen errentagarritasuna zaintzen ez bada gaurko ereduak jai dauka"**

**Pilotan eman dituzun urteetan aldaketa asko izan dira. Zein nabarmenduko zenuke?**

Gauza asko aldatu dira eta denak onerako izango direla esango nuke: egutegia zehaztuta izateak, araudi aldetik eman-dako aldaketeak edo telebista audientzien gorakadak bultzada

## PILOTA

**"Ikuslerik ez balitz etorriko frontoietara, seinale txarra litzateke. Zorionez, osasun onean dago pilota"**

eman diote pilotari. Beste *status* bat, beste kategoria bat lortu du pilotak eta horren lekuoa datu adierazgarri bat: bihar [martxena] *El Correo* egunkariak kiro-lari onenaren saria emango dio Titini. Orain dela urte batzuk zai-la zen pilotari bat beste kirolariei nagusitzea horrelako bozke-

## UDAL PILOTALEKUA

**"Eibarren ari gara domekero jaialdiak antolatzen. Astero ez, baina badugu asmoa Bergarara bueltatzeko"**

tan eta pilotak hartu duen indarraren datu adierazgarria da hori. Azken baten, izarrek ematen diote indarra kirol bat: begira 1 Formulan Fernando Alonsorekin gertatutakoa edo, atzerago joanda, txirrindularitzan Marinorekin edo Indurainekin...

**Telebistak bultzada nabaria eman dio pilotari, baina horrek ez du ikusleen beherakada ekarri? Badago belaunaldi erreleborik pilotazaleei dagokienez?**

Kirol profesionalak ez du etorkizunik telebistarik gabe. Gaur bezero globalak ditugula esango nuke, alde batetik frontoietara doazenak eta bestetik telebistatik pilotak jarraitzen dutenak. Ostiralean Mungian izan ginenean; urtean behin joaten gara eta pilotalekua bete egin zen. Zergatik? Neurri handi batean jendeak pilotariak telebistan ikustetik ezagutzen zituelako eta haien zuzenean ikus-teko gogoz zelako. Orain telebista kate mordoa daude eta ez da erraza audientzia lortzea, baina datuak onak dira... Edozein modutan, gaurko gizarteak aldaketa abida handiz etortzen dira eta adi ego behar dugu egoera berritara egokitzen asmatzeko. Frontoietan ikusleak egon badauden: iaz 220 jaialdi antolatu genituen. Zerbait egatik izango da...

**Bergarako pilotazaleak haserre dituzue. Eibarko Astelena berriro zabaldu zenetik, ez zarete Udal Pilotalekura itzuli...**

Beti egon daitezke haserre ego-teko arrazoiak eta beharbada pilotazaleek motiboak izango dituzte kontu horretan... Dena dela, ez dugu Bergarako Udalaren deirik jaso oraindik eta ulertu behar da ezinezko delarik Eibarren eta Bergaran egun berean jaialdiak antolatzea eta orain Eibarren ari gara domekero jaialdiak antolatzen. Lehen bezala astero ez, baina badaukagu asmoa Bergarara bueltatzeko. Urte berri egunean zergatik ez genuen jaialdirik egin? Nola inork ez zigun Bergaratik deitu, Eibarren egin genuen. Lehen Asegarcek antolatzen zuen Bergarako Gabonetako jaialdia eta guk Eibarren programatzea erabaki genuen aurten, besterik ez.

**Kuriositate bat: tabakoaren aurkako legea eskuan, nola da posible oraindik frontoietan erretzea?**

Legea beste toki askotan ere ez da errespetatzen eta kompeten-tzia asuntoan hutsune bat dagoela argi dago. Ohitura sozialak ez dira egun batetik bestera aldatzen eta ez gara hasiko orain polizia lanak egiten...

**Bukatzeko, binakako txapeldutarako faboritorik?**

Bai, Titin-Laskurain eta Gonzalez-Barriola.

BERGARA

# Emaitzak estuak saskibaloia eta eskubaloia partiduetan zapatuan

**SASKIBALOIA** Goizean barrena sei partidu jokatu zituzten zapatuan Mariaren Lagundiko kantxan

**PAREKATUTA** Bi partidutan izan ezik, azken minutura arte ez zen irabazlea erabaki saskibaloiko neurketetan

**ESKUBALOIA** Benjamin mailako eskubaloia partiduak gol gutxikoak izan ziren Labegaraietan

**EDU MENDIBIL > BERGARA**  
Saskibaloairekin hitzordua zeukan alebin mailako gaztetxoek zapatua goizean, Mariaren Lagundiko kantxan. Hotzari aurre egin, berehala berotu ziren jokalari gaztetxoek, kantxaren inguruau bildutako ikusleen txalo eta animuen artean.

Goizean barrena sei partidu jokatu zituzten eta emaitza honako hauek izan ziren: Antzuola A 13-Mariaren Lagundia B 16; Aranzadi B 12-San Martin B 26; Antzuola B 14-Mariaren Lagundia A 20; Aranzadi C 11-San Martin A 14; Mariaren Lagundia 16-San Martin 12 (neskak) eta Aranzadi A 13-Mariaren Lagundia A 27.



E.M.

**ESKUBALOIA LABEGARAIETAN**  
Era berean, Labegaraietako kiroldegian benjamín mailako eskubaloia partiduak izan ziren zapatuan. Gol gutxiko partiduak izan ziren eta neurketa guztietan markagailu estuak. Eskubaloikoak baino futboleko emaitzak direla ematen du. Defentsan ondoegi aritzetik agatik ala erasoko jokaldietan oraindik nahi baino gehiago kostatzen delako golak sartzea? Kontuak kontu, hauek izan ziren emaitzak: Antzuola A 2-Mariaren Lagundia A 1; San Martin C 0-San Martin A 2; San Martin B 0-Elgeta 2 eta Mariaren Lagundia B 0-Aranzadi 2.

Eskola Kiroleko 10. jardunaldia izan zen zapatuko eta gaztetxoek sasoi onean direla erakutsi zuten. Pixkanaka-pixkanaka kirol ezberdinei neurria hartzen ari dira gaztetxoek.



E.M.

**San Martin A.** Zutik, Gorka, Iker, Joseba eta Julen. Makurtuta, Mikel, Mohammed eta Xabat.



E.M.

**Antzuola B.** Ezkerretik eskumara, goian: Endika, Iker, Jon eta Iker. Behean, Dean, Unai, Iker, Aitor eta Oskar.



E.M.

**Aranzadi C.** Goian, Iker, Aritz, Julen, Paulo eta Vesko. Makurtuta, Ander, Mikel eta Asier.

## HERRI KIROLEN BEREZITASUNAK



Endika eta Iker  
Antzuola



Vesko, Mikel eta Asier  
Aranzadi Ikastola



Mohammed eta Xabat  
San Martin ikastetxea

Antzuola B taldeak 26-32 galdu zuen zapatuan, Mariaren Lagundia A taldearen aurka. Endika Cabok eta Iker Moyanok aurkarien nagusitasuna aitoritu zigutene: "Gubaino hobeto jokatu dute eta azkenean, gutxigatik bida, partidua irabazi dute. Lehen partidua irabazi egin genuen baina gaur ezin...". Saskibaloian ez ezik, eskubaloian eta futbolean ari dira Endika eta Iker.

Aranzadi Ikastolako C taldean ari dira Vesko, Mikel eta Asier. 10 urte dituzte eta zapatuko partidua aulkian hastea tokatu zitzaien. San Martin A taldearen aurka neurtu zituzten indarrak eta hiru puntugatik galdu zuten zapatuan. Saskibaloiko bigarren jardunaldia zen zapatuko hirukote honentzat eta oraingoan ere galtzea tokatu zitzaien. "Ondo pasatzen dugu Eskola Kirolean elkarrekin jokatzen, zenbait partidutan gure artean ere haserretu arren".

Partidu atarian, garaipena eskuratu zuetela aurreratu zigun Xabatek, eta baita asmatu ere. Azkenean, 14-11 irabazi zioten Aranzadi C taldeari. Bi partidu irabazi eta bakarra galdu dute orain arte. Kirolean aritzeko zapatutan goiz jaikitzea aste barruan baino gutxiago kostatzen dela diote. Hainbat kirol egin arren, futbolaga gustatzen zaie gehien. Fitxaketa onak dira hauek.



**Hedabide  
guztietarako  
telefono berria  
eta bakarra**

**943 25 05 05**



ASTELEHENeko  
**Goienkaria**

ASTELEHENeko  
**Goienkaria**



**Goiena.net**  
Debagoieneko Interneteko ataria



## > KANTARI

Oraingo astean GOITBn emitituko diren 11 taldeetako kantariak **> 24**



## > GURE TALDEAK

Arrasateko Enboskada taldeak bere lehen diskoa, kaleratu du **> 27**

## > JAVIER VIZCAINO

Radio Euskadiko esatariarekin hitz egin dugu. Kazetaritza ikasketak amaitu zituenetik Radio Euskadin dihardu. *Más que palabras* saioko zuzendaria da **> 29**



BERTSOA ETA MUSIKA > GU TA GUTARRAK ESPALOIAN

# Gutarrak Elgetatik kantuan mundua konpondu guran

Iban Arantzabal guitar gonbidatuak bi habanera abestu zituen taula gainean

Entzuleak gustura zeudenez, bi aldiz eskatu zuten "beste bat" jotzeko

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA**  
"Gutako bakoitzaren baitan hamaika guitar bizi da: amesalaria, zintzoa, parranda zalea, eroa...". Horrela hasi zuten ema naldia Igor Elortzak eta Unai Iturriagak Josu Zabalaren, Aitor Rubioren eta Xanpe-ren doinuak lagun. Espaloian izan ziren bertso musikatuak egubakoitzean eta bertara guitar asko gerturatzen, ia 300 lagun.

"Gaur maiteminduta gaude eta bihar minduta; nazkatuta gau de, euforiko gaude, Elgetan gaude; baina ospa egiteko gogoa iza ten dugu batzuetan...". Horrelako berbak esan arren ez zuten ez alde egin eta hitzei bertsoek har tu zieten tokia. Elgeta eta Espal oia aipatu zituzten esanez ibil bideko punturik altuenean jendearen neurriira jardungo zutela.

## SERIO ZEIN UMOREZ

Mikrofono aurrean Unai Iturriaga geratu zen. Bere guitar bertso laria barrutik atera eta aurpegiko keinu eta eskuen dantza lagun diskoko kantuei segida emanez. Igor Elortzak txanda hartu eta bertsolarien lan tresna den berba izan zuen gai. Hitz jokoekin entzuleen barreak eragin zituen.

Bertso moldeetatik atera eta rap erritoan guitar parranda zalea azaldu zen *Dr Jaiki & Mr Jai* abestian. Elortzak mikrofona askatuta jardun zuen, arin eta argi jokoek bizitasuna eman zioten kantuari.

Xalbadorren bertso bat erre zitatu eta Elortzak mikrofona ono tinko, sentimenduz, abestu zuen



ZIRIKA Iban Arantzabali zirika erantzun zieten Igor Elortzak eta Unai Iturriagak musikariekin habanera doinua jo bitartean.

JOSETXO ARANZABAL

hurrengoa Iturriaga lagun zuela. Honek hartu zuen leku gero *Noiz hasi ote zen dena* sortarekin.

Hainbat eta hainbat musikarien aipamena egin zuten gero. Guztien abesti edo doinurik ezin erabili eta *poutpurri* eran kantu ezagunen zatiak korapilatu zituzten baso bana ardo eskuan zutela. Jendeak txaloz lagundu zituen eta izan zen publikotik kantatu zuenik. Amaieran txalo zaparra da, txistuak eta oihuak.

## GUTAR GONBIDATUA

Iban Arantzabaleen txanda etorri zen gero. Elgetarra gonbidatu zuten taula gainera eta bi habanera eskaini zizkien entzuleei. Bertsolaria ez izanik bere ezintasuna aitorru arren bertsolariek eskertzeko eginahalak egin zituen eta txukun moldatu zen taula gainean. Hala ere, barra ertzean tra-

go bat eskutan mundua konpon tzeko parada hartzea nahiko zuela esan zien Elortza eta Iturriagari. Hauen bien erantzunik gabe ez zen geratu elgetarra. Eszenatokiko panpina deitu zioten, baita Ber tin Osbornerekin parekatu ere. Betti ere bertsolarien ohiko ironiaz.

Iban Arantzabalek emanaldiaren ostean esan zigun inoiz baino urduriago egon zela hasi aurretik: "Bertsolariak eurek errespetua eman didate eta sekula ez dut abestu eta hainbeste jenderen aurrean gutxiago. Hortaz, niretzat erronka handia zen. Bostekoaren konformatzen nintzen eta lorту dudala esan didatenez, pozik".

Igor Elortzak ere esan zigun, "hainbat kontzertu entzun ditugu batera, parranda ere ibili izan gara eta Elgetara etorrita, ba Iban gonbidatzea bururatu zitzagun. Zalantzak izan zituen, ez zekiela-

ko zer egin, baina azkenean bi habanera abestu ditu eta ongi jardun du mutilak".

Umore giroko unearren ostean, gai serioagoek hartu zuten tartea: politikaz jardun zuen Igor Elortzak, Unai Iturriagak erritimo biziagoan baina gai sakonez jardun zuen honek ere.

Biak mikrofono aurrean argi utzi zuten mundua jan guran hasi zirela, baina egun konformatzen direla munduak irenen ez baditu. Abesti hori aprobetxatu zuten musikariak aurkezteko.

*Gora gu eta gutarrak* kantua ri ekin zioten kopla zaharren doinua, txaloz lagunduta.

Txalo zaparra entzun eta emanaldia amaitu zela zirudienean jendeak gehiago eskatu zuen. Musikariak hasi ziren bertso tan, puntuaka eta entzuleak, noski, barrez. Iturriaga eta Elortzak har-

tu zuten leku gero eta Zazpi Eskale taldearen garaiko doinu batekin Elgetaz eta Espaloia jardun eta eskertu zituzten han elkartutakoak. Trago bat hartuz mundua kon pontzeko Iban Arantzabalek egindako gonbidapena ere izan zuten kanturako gai. Hortaz, berriz noiz bait izango dira Elgetan.

## BISA BI ALDIZ

Erretiratu ziren bai, baina entzuleek ez zuten ustez nahikoa eta hauen eskaerari erantzunez, berriz irten ziren jende aurrera *Banu, balego eta balitz* doinua abestuz. Honekin agurtu zuten saioa eta entzuleak gustura, baita bertsolariak ere: "Bigarren aldia da bi aldiz egiten dugula errepikapena, baina seinale ona da hori, entzuleak gustura eta baita gu ere", esan zigun amaiaran Igor Elortzak.



## Kantari Debagoienean

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ** > Urtarrilaren 22an **ORDUA** > 19:30ean **TALDEA** > Ane Maiztegi, Maialen Kortabarria, Maite Ponferrada eta Maria Iñarra. **HERRIA** > Arrasate **URTEAK** > 11 urte **ABESTIA** > Amets



**NOIZ** > Urtarrilaren 22an **ORDUA** > 19:30ean **TALDEA** > Leire Caceres, Naiara Capellan, Naira Canelo eta Sergio Fernandez **HERRIA** > Arrasate **URTEAK** > 8 urte **ABESTIA** > Furra Furra



**NOIZ** > Urtarrilaren 22an **ORDUA** > 19:30ean **TALDEA** > Ainhoa Sanabria, Ane Grille, Itziar Elkorobarrutia eta Mireia Cabrera **HERRIA** > Arrasate **URTEAK** > 9 urte **ABESTIA** > Laztana



**NOIZ** > Urtarrilaren 22an **ORDUA** > 19:30ean **TALDEA** > Garazi Garitaonandia, Jone Uribesalgo eta Maider Martinez **HERRIA** > Arrasate **URTEAK** > 10 urte **ABESTIA** > Aitormena



**NOIZ** > Urtarrilaren 22an **ORDUA** > 19:30ean **TALDEA** > Ander Manzano, Ane Murillo, Jone Godoi eta Laura Garcia **HERRIA** > Arrasate **URTEAK** > 11 urte **ABESTIA** > Oriko



**NOIZ** > Urtarrilaren 24an **ORDUA** > 19:15ean **TALDEA** > Amaia Ruiz, Maria Zubia, Olatz Muruamendiaraz eta Susana Moral **HERRIA** > Bergara **URTEAK** > 8 urte **ABESTIA** > Katuen testamentue



**NOIZ** > Urtarrilaren 24an **ORDUA** > 19:15ean **TALDEA** > Aitor Zurra, Alex Patan eta Andoni Barriobero **HERRIA** > Bergara **URTEAK** > 9 urte **ABESTIA** > Laztana



**NOIZ** > Urtarrilaren 24an **ORDUA** > 19:15ean **TALDEA** > Andoni Etxezarreta, Maider San Torcuato, Nerea Najera eta Uxue Sanz **HERRIA** > Bergara **URTEAK** > 11 urte **ABESTIA** > Amets



**NOIZ** > Urtarrilaren 24an **ORDUA** > 19:15ean **TALDEA** > Alazne Basterra, Ane Aramendi eta Jenny Llaneze **HERRIA** > Bergara **URTEAK** > 11 urte **ABESTIA** > Lo egin



**NOIZ** > Urtarrilaren 24an **ORDUA** > 19:15ean **TALDEA** > Ana Usabiaga, Oihana Garate eta Olatz Basterra **HERRIA** > Bergara **URTEAK** > 10 urte **ABESTIA** > Eskutitza



**NOIZ** > Urtarrilaren 24an **ORDUA** > 19:15ean **TALDEA** > Irati Sanz, Itxaso Calvano, Maddi Alberdi eta Maitane Juaristi **HERRIA** > Bergara **URTEAK** > 10 urte **ABESTIA** > Amets bat



**Gidatu zure barrenak eramaten zaituen lekuraino,  
13.910\*-tik aurrera**



## AURIS. Toyota berria.



Sentsazioak batzuetan ezin dituzu ulertu, eta zergatik ezin duzu sentitzen duzuna egin? Bideratu zure sentsazioak Auris Sportekin, potentzia kontzeptua gorenera igotzen duen autoa. 2.2 D-4D Diesel 177 ZP motorrak hori frogatzen du.

Autoaren erosotasuna eta deportibitatea bermatuta daude serieko ekipamenduari esker. Benetako sentsazioak barrutik sortzen direnak direlako.

- Argiaren eta euriaren sentsoreak
- 9 aire-poltsa
- TRC – Egonkortasunaren kontrol elektronikoa
- VSC - Trakzioaren kontrol elektronikoa
- Xenonezko faroak faro-garbitzailearekin

- Autoan sartzeko eta martxan jartzeko giltzarik gabeko sistema
- Suspentsio deportiboa
- 17"-ko aleaziozko hagunak
- Abiadura zaintzen duen bidaia kontrolatzalea

Auris 2.2 D-4D Diesel 177 ZP Sport, 24.340 €-tik aurrera\*\*



TODAY TOMORROW **TOYOTA**



3 URTEKO  
GARANTIA  
edo 100.000 km.

FINANCIAL  
SERVICES



Informazioa eta proba  
902 342 902

Kontzesionarioa

**EuskoAuto**  
Olabarrena zg BERGARA 943 76 23 85  
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

\* Prezio baliagarria Penintsula eta Balear uharteetarako Auris 1.4 WT-i 97 ZP 3 ate bertsioarentzako (pintura metalizatua ez dago barne). BEZA, matrikulazio erga, garraioa eta promozioa barne. Kontsumo mistoa 5,0 eta 7,1 artean l/100 km. CO2 emisioa 131 eta 166 g/km artean.

\*\* Eskauntza baliagarria hilabete bukaera arte Penintsulan eta Balear uharteetan Auris 2.2 D-4D Diesel 177 ZP 3 ate Sport bertsioarentzako (pintura metalizatua ez dago barne). BEZA, matrikulazio zerga, garraioa eta promozioa barne. Iragarkiko modeloaren kontsumoa: Toyota Auris 2.2 D-4D Diesel D-CAT 3 ate Sport.puertas "Sport".

**DANBAKA))))))** ABY KEM LEHIAKETAKO I. EDIZIOKO IRABAZLEA

**DISKO BERRIA ZURE ESKU**



CDA: **10 euro**

Asteleheneko Goienkariako harpideduna bazara: **8 euro**

Eskera egiteko deitu: 943 25 05 05 telefonora.  
ordutegia: 9:30-13:30 eta 15:00-18:30 edo bidali e-posta: idazkaritza@goiena.com helbidera.

Nahi baduzu 3 euroren truke, etxera eramango dizugu.



Argazkian ezkerretik eskumara Urtzi, Mikel, Oxel, Josu eta Asier.

JOSEKO ARANZABAL

# "Guretako oso aberasgarria da beste taldeen bertsioak egitea"

Zilegi al da? izenarekin kaleratu du Arrasateko Enboskada taldeak lehen lana; zazpi kanta berri eta kanta zahar bat biltzen dira discoan

Diskoaren kopia erdiak saldu dituzte dagoeneko, eta zuzeneko kontzertua ematen hasi dira; hurrengoa, otsailaren 1ean, Arrasaten

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE  
Oxel abeslariak, Urtzi baxuak, Josu bateria jotzaileak, eta Mikel eta Asier gitarrek osatzen dute Enboskada taldea. "Gogor" egin dute lan Zilegi al da? discoa kaleratzeko. Dagoeneko salgai dago ibarreko hainbat tokitan.

**Zer moduz doa discoaren salmenta?**

Zehatz ez dakigu, bada entzun dugunaren arabera, 500 kopietaik erdiak saldu dira dagoeneko. Hala bada, pozik gaude.

**Zein tokitan eros daiteke Zilegi al da? zuen discoa?**

Arrasateko Dat, Irati eta Biorna tabernetan; Bergaran, Oiagorran; Aretxabaletan, Urbaltzen; Azpeitiako Txarrantxa tabernan; eta, Algortako, Biñon tabernan. Halaber, gure emanaldietan ere salgai egoten da. Era berean, Donostia aldeko taberna batzuetara zabaltzeko asmoa dugu.

**Taldearen lehen discoa da. Nolakoa da? Zer musika lantzen duzue?**

Diskoan zazpi kanta berri, eta kanta zahar bat bildu ditugu. Azken hura, duela zortzi edo bederatzi urte egindako abestia da, taldearen bigarrena. Halaber, abestietan, gudari buruz, gazteek dituzte arazoei buruz, kontzertuei buruz hitz egiten dugu, besteak beste. Hitz egiten dugu, orokorrean, egunero bizi eta ikusten dugunari buruz. Eta, estiloari dagokionez, ez dugu estilo zehatz bat lantzen, talde kide bakoitzari musika mota bat gustatzen zaio-eta.

**Zilegi al da? izena jarri diozue discoari. Zergatik?**

Ze nolako munduan bizi garen ikusteko hausnarketarako aukera eman nahi dugu. Hala, discoarekin gerrateek eta AEBk eta haien aliatuek dituzten jarrera terroristak salatu nahi ditugu.

**Diskoa zuen kontura egin duzue, grabatu, kopiak egin, kaleratu... Gogorra izan da?**

Gogorra baino, bide luzea izan dela esango genuke, lan kontuengatik taldeak guztiak elkarrezko arazo asko izan ditugu-eta.

Diskoaren grabazioa lokalean egin genuen, taldeko kide Asierrek beste talde batzuekin grabatzen esperientzia zuen, eta harekin egin dugu.

**Hortaz, gustura zaudete "bide luzeak" eman duen emaitzarekin?**

Bai, orokorrean oso gustura gaude. Gauza batzuk hobeto egin zitezkeen, baina lehenengo discoa izateko oso pozik gaude, kontutan hartuta gure kasa egin dugula lan guztia.

**Ez duzue discoetxeekin lan egiteko asmorik?**

Egia esan, lehen discoa iza-teko dena ondo irten zaigu. Edo-zelan ere, ez da discoetxeekin lan egiteko gogorik ez izatea; bada, lehen discoa egiteko bide hau aukeratu dugu.

**Zeintzuk dira zuen erreferenteak musika munduan?**

Talde asko aipatuko genituzke. Arrasateko taldeen artean, Zakarrak, RIP eta Puñetazo, besteak beste. Halaber, Inglaterra-ko Cockney Rejects, The Clash, 4 Skins eta Infariot dira gure erreferenteak.



**Botas y tirantes berreskuratu dute**

Egunero gertatzen diren gaiak kontutan hartuta idatzi ditu Enboskada taldeak lehen diskoko kantak. Zortzi bildu ditu Zilegi al da? discoan: Zilegi al da?; Noiz arte?, AHT-rik ez!; Etorkizun iluna; 25 urte; Bidaia bat; Ongietori; eta Botas y tirantes. Azken hau duela bederatzi urte idatzitako kantada, taldeak egindako bigarrena.

Punk Oi! musika lantzen duen taldearen discoa osoa da, eta zaleen artean harrera ona izan duena. CDko musika baino Enboskadaren zuzenekoa gustuko dutenek baditzute kontutan hartz beharreko egunak: otsailaren 1ean, Arrasateko Dat tabernan joko dute; eta otsailaren 8an, Abadiñoko gaztetxe-an, Never Surrenderen.

**Mireia Bikuna**

**Beste talde batzuen bertsioak ere egiten dituzue. Nolant?**

Lehen kanta konposatu arte bertsioak jotzen genituen. Gure ustez, talde batendako oso aberasgarria da bertsioak egitea, asko ikasten da-eta. Hala, gaur egun ere, gure talde erreferenteen bertsioak egiten ditugu.

**Disko hau grabatu aurretik, Never Surrender taldearekin disco bat egin zenuten erdi bana. Nolako esperientzia izan zen?**

Esperientzia oso ona izan zen. Diskoa Ondarroako IJM estudioan grabatu genuen. Diskoa grabatu ondoren hainbat kontzertu eskaini genituen. Harreman oso ona egin genuen.

**Danbaka musika lehiaketan ere parte hartu zenuten.**

Bai, hala da. Eta esperientzia harekin ere oso gustura gaude, lehiaketan lagun asko egin genituen-eta. Halaber, gure aldeko SMS mezu asko jaso ziren.

**Bukatzeko, zerbait gehitu nahiko zenukete?**

Bukatu aurretik eskerrak eman nahi dizkiegu gure bidean aurrera jarraitzen laguntzeko indarra eman diguten lagun guztie; eta, gure kontzertuetara etor-tzen direnei, eta, noski, gure discoa erosi dutenei. Guztie, eskerrik asko!

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 m<sup>2</sup>-ko etxe salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela handia, sukalddea, despentsa eta bi balkoi. Garajea aukeran. 617 00 37 30 edo 943 78 71 32.

**Aretxabaleta.** Bi etxebizitzat batean, erdieldean. Batak 115 metro koadro, lau logela, sukalddea, bi komun eta igogailua daztu. Besteak, 75 metro koadro, bi logela, sukalddea, egongela, jangela, bi komun eta igogailua. Biak batera doaz. 648 79 47.

**Arrasate.** Duplexa salgai Otañola kalean. Bi logela, bi komun, sukalddea, egongela eta 20 metro koadroko terraza. Igogailua eta gas naturala. 696 79 43 89.

**Arrasate.** Erdialdean 48 m<sup>2</sup>-ko apartamentua salgai, guztiz berritua. Igogailua eta berogailua. 645 73 04 69.

**Arrasate.** San Andresen, Arrasate dorrean etxebizitzat salgai. Lau logela, egongela, bi komun, sukalddea eta bi balkoi

ditu. Guztia kanpoaldera begira. 638 01 47 02.

**Arrasate.** San Josepe auzoan. 75m<sup>2</sup>. Hiru logela, komuna, sukalddea eta egongela. Igogailua eta berogailua. Trasteleku. Guztiz berritua. 626 00 80 19.

**Arrasate.** Zerrajera kalean 80 metro koadroko etxe salgai. Bi logela eta bi komun. Dena kanpoaldera begira. 656 77 94 32.

**Bergara.** Aranerrekan etxebizitzat salgai. 75m<sup>2</sup>, guztiz jantzia. Hiru gela, egongela, bi bainugela, sukalddea, terraza, garbanera eta berokuntza centrala. 665 71 48 30.

**Bergara.** Artzamendi kalean. Hiru logela, bi komun, sukalddea eta egongela. Balkoa eta terraza. Igogailua. Kanpoaldera begira eta guztiz eraberritua. 18:00etatik aurrera deitu. 655 87 53 43.

**Bergara.** Zubietza kalean 50 metro koadroko etxebizitzat salgai. Fatxada eta teilatua berriku. Igogailua eta berogailua. 645 73 04 69.

**Donostia.** 74 m<sup>2</sup>. Zurriolako hondartzatik bost minutura. 330.556 euro. Aukera aparta. 639 33 33 58.

**Donostia.** Egia auzoan. 55 m<sup>2</sup>.

## BERGARAKO UDALA

**Bergarako Udal aldizkaria Kirol Zikloetako Koordinatzalea lan jardun partzialarekin kontratu eta lan-poltsa osatzera doa lehiaketa-oposizio bidez.**

## Izangain baldintzak:

a) Magisteritzako diplomatura eta kirol heziketan erreziklaje, magisteritzako heziketa fisikoan diplomaduna edo jarduera fisiko eta kiroltako zientzietan lizenziaturaren hiru kurso gaindituta izatea.  
b) 3. hizkuntza eskakizuna izatea.

**Instantziak aurkezteko epeak:**  
2008ko urtarrilaren 25a arte.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan, eta [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean.

**Bergara, 2008ko urtarrilaren 17a**  
**ALKATEAK**



## LAN ESKAITZA

AED Euskara Elkarteak dinamizatzale bat behar du motibazio arloko ekintzak eta auzoetako proiektua kudeatzeko

## ESKATZEN DA

- Euskaraz jakitea, ahoz eta idatziz (EGA gutxienez)
- Harremanetarako gaitasuna izatea
- Jarrera ekintzalea izatea

## BALORATUKO DA

- Dinamizazio eta gestio lanetan esperientzia izatea.
- Bailarakoa izatea.
- Euskalgintza ezagutzea

## ESKAINTZEN DA

- Sei orduko lanaldia
- Herri proiektu aberasgarri batean parte hartzeko aukera.

**Curriculumak AED elkartera bidali urtarrilaren 25a baino lehen (posta elektronikoz bidal daitezke)**

Pablo Uranga kalea 6, behe 20500 Arrasate  
Tel.: 77 12 28  
aed@aedelkarteak.com



Dekoradoreak egindako erreforma integrala. 52.000.000 gegeta. Aukera aparta. 639 33 358.

**Elgeta.** Etxebizitzat salgai San Roque kalean. 105 m<sup>2</sup>, laugarren solairua. Lau logela, bi komun, jangela, sukalddea eta trasteleku. Eguzkitsua. Erabat jantzia. 234.394 euro. Deitu 669 66 82 24 edo 657 77 67 91 telefono zenbakietara.

**Eskoriatza.** Erdigunean etxebizitzat estreinatu gabea salgai. 80m<sup>2</sup>. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukalddea, berokuntza centrala... 258.000 euro (prezio negoziagarria). Deitu 669 93 74 03 zenbakira.

**Eskoriatza.** Etxebizitzat salgai Dorleta auzoan. 82 metro koadro. Lau logela, sukalddea-jangela, bainugela eta berogailua ditu. Fatxada berritua. Oso eguzkitsua da. 35.000.000. 645 97 45 64.

**Osintxu.** Duplexa salgai. 42 m<sup>2</sup>. Bi gela, egongela, bainugela bat eta sukalddea. 98.000 euro. 665 71 48 30.

**Ofati.** 100 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai Bidebarrietan, Errermentari plazan. Sukalddea, bi bainugela, egongela, hiru logela eta egongela txiki bat. Garaje handia. 665 72 14 90.

**Ofati.** 116 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai Kale Zaharrean. Hiru logela, sukalddea, bi komun, egongela, estudioa eta bi trasteleku. Erdi jantzia eta egoera onean. 348.000 euro. Deitu 616 84 39 32 edo 615 70 81 95 telefono zenbakietara.

**Ofati.** Diseinuko duplexa salgai. 120 m<sup>2</sup>. Kale Zaharrean. Argitsua eta material ederrekinegiña. Hiru logela, bi komun, sukalddea, egongela eta estudioa. 679 39 36 93.

**Ofati.** Duplex zoragarria Kale Zaharrean. 110 m<sup>2</sup> erabilgarri. Prezio ezin hobeak: 358.000 euro. 661 68 11 24.

**Ofati.** Duplex zoragarria Kale Zaharrean. 110 metro koadro erabilgarri. Hobeto kustea. Prezio ezin hobeak: 358.000 Euro. 661 68 11 24.

**Ofati.** Duplexa salgai erdialdean. 105 m<sup>2</sup>. Lau logela, bi komun, egongela eta sukalddea. 635 71 41 14.

**Ofati.** Etxebizitzat salgai Olakua auzoan. Hiru logela, egongela, bainugela, sukalddea, trasteleku eta garaje txiki. Guztiz eraberritua. Deitu 665 72 87 89 edo 657 72 25 70 telefono zenbakietara.

**Aramao.** Iturrizuri kalean garaje bat errentan ematen da. Gauz deitu. 945 44 51 97.

**2/ GARAJEAK**

## 203. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Iturrizuri kalean garaje bat errentan ematen da. Gauz deitu. 945 44 51 97.

## 204. ERRENTAN HARTU

**Araitzaga.** Etxebizitzat errentan hartuko nuke. 679 98 38 30.

## 205. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bila nabil, otsailletik aurrera biziak. Sara. 677 98 59 14.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitzat osatzeko Musakola auzoan. Etxea egoera onean eta ondo kokatuta dago. Berokuntza indibidualekin. 699 47 76 24.

**Arrasate.** Pertsona batendako logela bila nabil. Mutil ardura-sua. Miguel. 656 66 49 75.

**Gasteiz.** Neska behar dugu etxeak osatzeko Gorbeia kalean. Berokuntza centrala dauka. 300 euro gehi gastuak. 652 72 18 87.

## 206. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Lokala ahaliketa batean nuke. 644 10 15 edo 656 73 34 84.

## 207. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 80 metro koadroko lokala ematen dut errentan. 645 00 80 55.

## 208. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Neska koadrak batean nuke. 695 74 27 95.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU GUARDIAZ. GAINERAKO, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**

**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZAKO ETA ASTELEHENENKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GEROU 25 EURO (+BEZ).**

**GOIENKARIAK EZ DU ARGITARATZEN DIREN IRAGARKIEN ONDORIOZ SOR DAITEKEEN OPERAZIOEN ERANTZUKIZUNIK.**

tziarekin. Deitu 696 48 42 50 telefono zenbakira.

**Debagoina.** Mutila gertu edozein motatako lanak egiteko: tabernan, lantegietan, garbitaketa... Miguel. 656 66 49 75.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingles Eskola ematen ditut. Telefona: 943 79 03 83.

**Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriazta.** Lehen Hezkuntzako eta DBHKo 1, eta 2. mailatik eskola partikularak emango nituzke. 685 76 70 82.

**Arrasate.** Ingelesko eskola partikularak ematen ditut Arrasaten. Maila guztiak. Arrasaldeko deitu. 679 23 25 64.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**C-Max** autoa salgai. Hagunak (llantak) eta aire-girogailua ditu. 50.000 km. Diesela. Beltaza. 12.500 euro. Deitu 639 90 36 18 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Emakumea prest edozein lanetarako. Egunero bi ordu, astehelenetik egubakoitzera. Deitu 649 66 49 85 telefono zenbakira.

**California TDI** furgoneta. 102 ZP. 2001eko. 95.000 km. 27.000 euro. Telefona: 649 34 82 92.

**Nissan Almera** salgai. 2.2 di 16V. Sport. 646 03 39 45.

**Renault Laguna.** Egoera onean dagoen 11 urteko Renault Laguna 1.9 TDI salgai. Salneurri integrasgia. 677 93 83 19.

**Renault Laguna** familia. Oso egoera onean. Motor berriberria eta bermearekin. 150 zaldi. Diesela. Aire giroa, engantxeta... 13.000 euro. Deitu 943 71 25 16 edo 605 76 87 72 telefono zenbakietara.

**Skoda Octavia** TDI autoa salgai, egoera onean. 3.000 euro. Telefona: 606 24 21 21 zenbakira.

## gazte zerbitzuak

## BEKAK

**Kirola.** Kirolgi Fundazioa. Bakarka parte hartzeko kirol-modalitateetako Gipuzkoako kirolariei laguntzak emateko deialdia. Epea: urtarrilaren 31a.

## EKINTZAK

**Pirritxeta Porrotx.** Otsailaren 2an, arautusteak larunbatean, Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldiak izango dira Bergarako Udal Pilotalekuaren. Bi emanaldi izango dira: 16:30ean eta 18:30ean. Sarreraren salmenta: Urtarrilaren 22, 23 eta 24an Bergarako Udal Pilotalekuko leihatilan, 17:00etatik 20:30era. Gehienez 6 sarrera haratu ahal izango ditu pertsona bakoitzak. Sarrera bakoitzak 4 euro kostatuko da.

## IKASTAROAK

**Kutxa Ikasgelak.** Gipuzkoako herri ezberdinietan egingo diren negu-udaberri ikasgelak 2008. Informazio gehiago: [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net).

## LEHIAKETAK

**Etxebitzitzat berriak.** Eusko Jaurlaritza. Biziak gune berriei buruzko lehiaketa [concursoespaciosparavivir@visesa.com](mailto:concursoespaciosparavivir@visesa.com) Epea: otsailaren 15a.

## LANA

**Inkestatzalea.** EAEko Ikerketa Bulegoa. EAEko hiriburuaren eta beste hainbat herrian inkestak egiteko. Epea: otsailaren 15a.

**Astialdiko Begiralea.** Txatxilipundi Elkartea. Ludotekerako begiraleen lan-poltsa osatzeko deialdia. Epea: otsailaren 1a.

## astea GOITBn

Astelehena, 21




>'Harmailatik' saioan eskubaloia eta futbola  
21:15

Aloña Mendi eta Udaren arteko futbol derbia eta Oñatin jokatuko den Asobal ligako lagunarteko esku balloi partidua *Harmailatik* saioan.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Erreportajea: Ttipi TTapa.  
14:15 Eltze beroa.  
14:45 Berriak.  
15:15 Ilunpean  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Berriare.  
16:15 Berriare.  
16:45 Berriak.  
17:15 Calimero.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Hitz bitan.  
18:15 Ikusten.  
18:45 Berriak.  
19:15 Gertutik.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bividunak: Calimero.  
20:45 Berriak.  
21:15 Hamaillatik.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Udadzen koloreak.  
22:15 Kirolari.  
22:45 Berriak.  
23:15 Hamaillatik.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 28 Klipa.  
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 22




> Gaurkotasuneko gaiak mintzagai, 'Berbaire'-n  
21:47

Ibarreko kontuak landuko dituzte Lourdes Idoiagak, Iñaxio Garrok, Lore Martinezek eta Manu Egañak, Julen Iriondok aurkeztuta.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bividunak: Horry.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Erreportajea.  
14:15 Harmailatik.  
14:45 Berriak.  
15:15 Gertutik.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Kirolari.  
16:15 Eltze beroa  
16:45 Berriak.  
17:15 Horry.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 28 Klipa.  
18:15 Musikantoi.  
18:45 Berriak.  
19:15 Marrazki bividunak: Horry.  
19:45 Berriak.  
20:15 Kantari.  
20:45 Berriak.  
21:15 Teknopolis.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Berriare.  
22:15 Animaliak.  
22:45 Berriak.  
23:15 Teknopolis.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Erreportajea.  
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 23



> Zitrikoen ezaugarriak 'Zaharrak berri'-n  
20:15

Zitrikoen nutri- zio ezaugarriak, erramu biribilak nola egin eta tertulia tartea izango dira protagonista *Zaharrak berri* saioan.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Erreportajea.  
14:15 Harmailatik.  
14:45 Berriak.  
15:15 Gertutik.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Kirolari.  
16:15 Eltze beroa  
16:45 Berriak.  
17:15 Horry.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Gertutik.  
18:15 Harmailatik.  
18:45 Berriak.  
19:15 Marrazki bividunak: Horry.  
19:45 Berriak.  
20:15 Kantari.  
20:45 Berriak.  
21:15 Ikusten.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Zu kazetari.  
22:15 Ur eta Iur.  
22:45 Berriak.  
23:15 Teknopolis.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Jazmina.  
00:15 Emisio amaiera

Eguena, 24



> 'Musikantoi': estilo diferenteak entzuteko aukera  
22:15

E g u e n e r o moduan, askotariko musikaz betetako saioa prestatu du astea honetara- ko ere Maider Arregik, *Musikantoi* saioko aurkezlearen eskutik.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Marazki bividunak.  
14:15 Zu kazetari.  
14:15 Eltze beroa.  
14:45 Berriak.  
15:15 Berriare.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Animaliak.  
16:15 Teknopolis.  
16:45 Berriak.  
17:15 Horry.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Gertutik.  
18:15 Harmailatik.  
18:45 Berriak.  
19:15 Marrazki bividunak: Horry.  
19:45 Berriak.  
20:15 Zaharrak berri.  
20:45 Berriak.  
21:15 Erreportajea.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Berriare.  
22:15 Ur eta Iur.  
22:45 Berriak.  
23:15 Teknopolis.  
22:45 Gaurkoak.  
23:30 Jazmina.  
00:15 Emisio amaiera

Egubakoitzza, 25



> Itoiz taldeko Juan Carlos Perez 'Ilunpean'-en  
22:15

Itoiz taldeko kantari ohia izango da gaurko gonbidatua. Haren ibilbideari gainbegiratua, Iker Barandiaran aurkezlearen eskutik.

13:15 Emisio hasiera.  
13:20 Marrazki bividunak: Zuharrak berri.  
13:45 Gaurkoak.  
13:47 Marazki bividunak.  
14:15 Zu kazetari.  
14:45 Berriak.  
15:15 Berriare.  
15:45 Gaurkoak.  
15:47 Animaliak.  
16:15 Teknopolis.  
16:45 Berriak.  
17:15 Horry.  
17:45 Gaurkoak.  
17:47 Ilunpean.  
18:15 Eerreportajea.  
18:45 Albisteak.  
19:15 Ikuasmira.  
19:45 Berriak.  
20:15 Marrazki bividunak: Marrazki bividunak.  
20:45 Berriak.  
21:15 Erreportajea.  
21:45 Gaurkoak.  
21:47 Gertutik.  
22:15 Ilunpean.  
22:45 Berriak.  
23:15 Berriare.  
23:45 Gaurkoak.  
23:30 Musikantoi.  
00:15 Emisio amaiera

## arrasate irratia

FM 107.7

> Arrasateko udal aurrekontuak  
Arrasate Irratian  
10:30

Arrasateko udal aurrekontuak izango dira gai nagusia oraingo astean. Arrasate Irratian. Izan ere, ezustekorik ezean, egunean onartuko dituzte aurrekontuak Arrasaten. Hori izango da aste-ko gaia, beraz.

Astelehenezik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!

Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Iibili Munduan geltokia  
Elkarritzketak  
Lorategiaren geltokia  
Zozketak  
Zorion agurrik  
(parte hartzeko: 943 71 17 31)

12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

12:20 Izaren ordua:  
abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Igo autobusera! (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00

Arrasate Irratiko albistegi laburra.

17:15 Zorionagurrentartea(errep.)

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.  
*Ilunpean*saioan, Exkixutaldeko Alex Sardui; musika kontuak, *Kantaka* saioan; hirugarraren adineko gainekoak (dieta kontuak, besteak beste) *Zaharrak*berri, etabeste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.  
16:00 Danbaka: Scam.  
23:00 Danbaka: Scam.

## gertutik



Javier Vizcaino

Radio Euskadiko esataria

## "Jendearen jenioa umorean birziklatzea da gure asmoa"

MIREN ARREGI > BERGARA

Javier Vizcaino duela 40 urte jaio zen Barakaldo Zuazo auzoan, eta Erandion, Astrabuduan, bizi da egun. 1991n kasetaritza kasketak amaitu zituenetik dihardu Radio Euskadin lanean. Denetik egitea egokitu zaio; prentsa arrosako esataria izan da, kirol kontuen berriemaile ere bai, eta egun Radio Euskadiko *Más que palabarra* sailaren arrakastahan- dia lortu du Vizcainok.

Gipuzkoako sagardo denboraldia inauguru duzu. Sagardotegira joateko ohituratik baduzu?

Egia esan joan den astean izan nin- ten lehen aldiz benetako sagardote- gi batetan. Bizkaian, sagardotegi kon- tzeptua desberdina da, esan daiteke hemen sagardotegiak erretegiak bezalakoak direla. Asko gustatu zitzaidan bertako giroa. Pentsatu nuen kanpo- tek oporretan etortzen den jendea zur eta lur geldituko dela *txotx* esan eta jende guztia sagardoa hartzen joaten denean.

Prentsa arrosako esatarie izan zara. Gaur egun jarraitzen duzu kazetaritza genero hori?

Eguaztenetan, prentsa arrosako aldizkarietan agertzen zenaren erre- pasoa egiten genuen. Nik ez nuen ezer ulertzen, gai horietaz erredakzioan gutxien zekiena nintzen. Orain ez dut jarraitzen prentsa arrosa, baina lagun oso on bat dut Tele Cincoko *Aquí hay tomate* saioan lanean. Batzuetan kazetaritza modu hori duina dela azaltzen saiatzen da laguna, baina niri zikinka handi bat dela iruditzen zait.

**Cocidito madrileño** egiteko entzuten dituzun "astakeriek" haserretzen zaituze?

Lehen agian bai, baina urteekin ikasi egin dut eta orain ez dut gaizki pasatzen. Forense bat bezalakoa naiz; "hildakoa" aurrean izan eta hura axolagabekeria puntu batekin begiratuko banu bezala. Batzuetan haserrea ekiditea ezinezkoa bada ere, orokorrean ez dut gaizki pasatzen. *Cocidito*-rekin jendearen jenio txarra umorean eta irribarrean birziklatzea lortu nahi genuen, betiere esaten ari direnak ahaztu gabe. Nik, esaten dituzte- nak modu horretan entzun behar direla uste dut, eta hala egiten dut.

## asteko hitzorduak

### Kontzertua



ARRASATE

> Gose taldeak disco berriko kantak joko ditu 3.60an, kontzertuan

Gose trikiti-musika elektroniko estiloko talde arrasatearrak bere bigarren laneko, disco zuriko abestiak joko ditu egubakoitzean, hilak 25, 3.60 aretoan, 23:00etan hasita. Ti2nok ere joko du.

### Kontzertua



SORALUZE

> Debagoineneko musika eskolek kontzertua egingo dute egubakoitzean

Bergarako, Arrasateko, Oñati, Aretxabaletako eta Eskoriatzako musika eskolek, Soraluzekoarekin batera, kontzertua egingo dute egubakoitzean, Soraluzeko kirolegiko frontoian, 18:30ean.

### Jaiak



ARETXABAleta

> Aratusteek ongiotorria emateko, Txapeltxin eguna ospatuko dute

Txapeltxin jai eguna antolatu dute Aretxabaletako Karnavalen Lagunek zapaturako. Hitzordu nagusia 18:30era- ko da: nork bere txapela jantzita, kirol etxe aurrean batuko dira, *Txapeltxin* abestiarekin kalejira egiteko.

**kuxkuxeroa**

Irati Agirreazaldegi

**Jairik jai  
aukera bada  
nonnahi**

Urtarrilak 17, San Anton. Ez nintzen Getarian egon. Baino ona omen zegoen txakolina. Apartsua, kupela ireki zuen Haritz Aranburuk hartzent dituen olatuak adina. Oñatin Gabonetan eta Getarian San Antonetan, familiak badu zeresanik horretan.

Txakolinetik ardora; ez Errioxara baizik Elgetan gora. Gu ta gu tarrak taldekoen esanetan, Espaloian atera zieten ardoa, ederra benetan.

Txotx denboraldia ere hasi da. Ez naiz joan ez Astigarragara ez Hernanira.

**"Mila Elortzak eta  
Asier Agirrek  
kupelak zabald  
zituzten Iturrieta  
zapatuan"**

Gurean geratuz gero, edan gabe egoerik ez espero. Ara-maioko Iturrieta sagardotegian zabaldutu dituzte kupelak asteburuan. Trikiti doinu eta Andere Arriolabengoaen bertsoen ostean, Mila Elortzak eta Asier Agirrek bete zituzten edalontziak modu seguruan. Jaia eta AHTren aurkako borroka bateratzea izan zituzten akorduan.

Donostian eta Azpeitian San Sebastianetan. Danbor hotsak kale bazterretan. Gurean bestelako hotsak dira nagusi. Nork ez du Arrasateko Inauteriak iragarteko geratu duten bideoa ikusi? Aratusteak gertu koadrilek mozo-roa prestu. Arrasaten bazkaritarako txartelik ez duena ibiliko da estu.







Jai eta santu parranda gogoa bada ezin geratu.

**PARTE HARTU**

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure  
txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azal-pena  
edo bidali honako helbidera:  
[astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)

**zorion agurrak**ARRASATE  
Pili Madinabeitia  
Urtarrilaren 7an.  
Zorionak eta urre  
askotarako, lankide-  
en partetik.ARRASATE  
Sarai Del Rio  
Urtarrilaren 11n, 3  
urte. Zorionak  
Arizmendi Sanvi  
Txikiko lagunen  
partetik.OÑATI  
Miren Ugarte  
Urtarrilaren 12an.  
Zorionak zure  
12.urtebetetzean  
zure lagunen  
partetik.ARETXABAleta  
Haizea  
Duandikoetxea  
Urtarrilaren 13an 15  
urte. Zorionak eta  
laztan bat gurasoak  
eta anaia Mikelen  
partetik.BERGARA  
Aitzol Gutierrez  
Urtarrilaren 13an 15  
urte. Zorionak eta  
laztan bat gurasoak  
eta anaia Mikelen  
partetik.ARRASATE  
Gaizka Arizabaleta  
Urtarrilaren 16an, 2  
urtetxo. Zorionak  
familiaren partetik  
eta patxo handi bat!OÑATI  
Arantza Ugarte  
Urtarrilaren 17an.  
Zorionak  
Arantxiiiiii!!  
Primeran pasau  
zure urtebetetze  
egunian ta zeuk be  
juerga ona bota!  
Kuadrillan parte!ARRASATE  
Kristina Azurmendi  
Urtarrilaren 17an,  
6 urte. Patxo handi  
bat birramonen  
eta izeba Maite eta  
osaba Pakoren  
partetik!OÑATI  
Joane Arkauz  
Corrales  
Urtarrilaren 18an.  
urtebetete. Zorionak  
eta patxo haundi  
bat etxeko  
partetik!ARRASATE  
Markel Errasti eta Baltza Medrano  
Urtarrilaren 18an. Zorionak, bikote! Gora  
gu eta txikitero! Ondo pasa! Lagunen  
partetik.OÑATI  
Itziar Landeira eta  
Garazi Guridi  
Urtarrilaren 18an.  
Zuek bai wapak!  
Aber ondo ondo  
pasaiten dozun  
bale?OÑATI  
Iratxe Egaña  
Urtarrilaren 18an.  
Epa petar!!  
Zorionak kuadrilan  
partetik eta ondo  
zelebrau. Patxo  
haundi bat!ESKORIATZA  
Aritz Oianguren  
Urtarrilaren 18an.  
Katxi-zorionak pitz!  
25 katxiburu-urte  
e? la "arroza pasa-  
txen ari satiskigutela!" Ondo pasa  
zure eguna ta pre-  
parau zapaturako!OÑATI  
Miriam Arregi  
Urtarrilaren 19an.  
Zorionak eta urre  
askotarako! Ondo  
pasau zure egunian  
eta laztan haundi  
bat.OÑATI  
Mikel Ugarte  
Urtarrilaren 20an ,  
13 urte. Zorionak  
etxeko partetik.BERGARA  
Markel Madina  
Urtarrilaren 20an,  
15 urte. Urte asko-  
tarako! Famelixa  
danen partetik.ARRASATE  
Iraia Nieto Gorskabal  
Urtarrilaren 21ean.  
Zorionak sorgintxo!  
Besarkada handi  
bat zure familia eta  
aitatxo, amatxo eta  
Garaziren partetik.BERGARA  
Ander Muxika  
Urtarrilaren 21ean  
lau urte beteko  
ditu. Zorionak eta  
patxo handi bat  
Irat eta etxeko  
partetik.OÑATI  
Leire Egaña  
Urtarrilaren 21ean,  
8 urte. Zorionak  
printzesia! Patxo  
handi bat etxeko  
partez, bereziki,  
Eiderren eta  
Markelen partetik.BERGARA  
Alex Elgezua  
Urtarrilaren 22an 6  
urte. Zorionak  
potxolo, familia  
guztiaren partetik.BERGARA  
Maider Bilbao  
Urtarrilaren 23an,  
hiru urte. Zorionak  
Haritzen partetik.ARRASATE  
Luken Ormaetxea  
Urtarrilaren 23an.  
Katxiporreta! Bi  
urte! Patxo handi-  
handi bat etxeko  
guztien partetik!ARRASATE  
Ainhoa eta Leire Carrascosa  
Leirek, urtarrilaren 24an, 5 urte.  
Ainhoak, urtarrilaren 25ean, 9 urte.  
Zorionak! Etxeko guztien partetik.ARRASATE  
Fernando  
Amozarrain  
Urtarrilaren 24an,  
urtebetetza.  
Zorionak, bihotz-  
bihotzez, familia  
guztiaren partetik.ARRASATE  
Eli Amozarrain  
Urtarrilaren 24an.  
Zorionak, tia Eli!  
Milaka patxo zure  
bihotzezko Oxelen  
partetik.BERGARA  
Markel Molina  
Urtarrilaren 24an  
10 urte. Zorionak  
eta laztan bat gura-  
soak eta Jonen par-  
tetikBERGARA  
Mikel Molina  
Urtarrilaren 25ean  
4 urte. Zorionak  
eta patxo bat aittita-  
amama, osaba-  
izeba eta lehengu-  
suak.BERGARA  
Margarita Iñurrategi  
Urtarrilaren 25ean  
82 urte. Zorionak  
eta patxo handi  
piloa etxeko par-  
tetik. Zapataun  
Zubiaurren paste-  
lak bai?ARRASATE  
Mertxe Uriarte  
Urtarrilaren 25an,  
urtebetetza.  
Zorionak, amama!  
Pablo, Malen,  
Martin eta Naroa.ARRASATE  
Paula Heriz  
Uribesalgo  
Zorionak, preioxoa!  
Urtarrilaren 26an,  
18 urte. Ondo segi  
eta patxo pila bat  
Zigarrakoen par-  
tetik.ARRASATE  
Aimar Agirre Lete  
Urtarrilaren 26an, 2  
urte. Zorionak,  
familiaren partetik,  
bereziki aita eta  
amaren partetik.  
Patxo handi bat!

ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENKO GOIENKARIAREN bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

ARRASATE  
Eider Prieto  
Urtarrilaren 26an,  
5 urte. Zorionak!  
Izar, Aitor, Naia,  
Josu eta Garazi.

## asteburuko albuma



**Bazkaria Kanuto Deunean.** Zortzigarren urtez gurtu zuten Kanuto deuna zapataun Aretxabaletan, bolo txapelketarekin eta bazkariarekin. Ostean kalejira egin zuten Orkestra taldearekin eta gaua girotzeaz Nealta Folla eta The Telon-heroes Band taldeak arduratu ziren. Makina bat lagun elkartu zen bazkaritarako, argazkian ikusten denez, Kanuto santua gertu-gertutik zain eta "bedein-kapena" emanet. Herri bazkaria Arabaibildibidean egin zuten, Arkarazo auzoko bidegurutze alboan dagoen eraikinean.



**Afaritan ere berriketan.** Egubakoitzean egin zuten Jarduneko *Berriketan* egitasmokek afaria. Euskaldun zaharrak eta berriak elkarrekin euskaraz egiteko elkartzen ditu Bergarako Jardun elkartearren ekimen honek eta egubakoitzean Oxirondo elkartean egin zuten hitzordua, bapo afalduz.



**San Sebastian eguna.** Danbor hotsak ez dira Azpeitia eta Donostian bakarrik entzun egun hauetan. Ibarreko txikienek ere danbor jotzaile finak direla erakusteko aukera izan dute. Argazkitan daudenak Arrasateko Bedoñabe Herri Eskolakoak (goian), Bergarako Aranzadi Ikastolakoak (erdian) eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako Arizmendi eta Basabeazpi ikastoletan neska mutikoak dira danbor eta makilak ondo baino hobeto astinduz.

**Krosa.** San Anton Krosaren 31. ekitaldia jokatu zen domeka eguerdian Bergaran. 59 partaide izan ziren eta 7,5 km-ko ibilbidean Beñat Arnaiz aretxabaleta-rra eta Mari Carmen Garcia arrasatearra nagusitu ziren. Gazttxotan Beñat Etxabe izan zen azkarrena.

### ESKER ONA

## Nati Aretxaga Esteban



Urteurreneko hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko urtarrilaren 2leean.

## hildakoak

- Rosario Bujanda Gorritxo  
Oñatin, urtarrilaren 17an. 95 urte.
- Juan Riera Perez  
Bergaran, urtarrilaren 17an. 58 urte.
- Emilio Alberdi Zabala  
Bergaran, urtarrilaren 18an. 68 urte.
- Jesusa Igartza Iturriño  
Aretxabaletan, urtarrilaren 19an. 77 urte.

## BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Juan Carlos Perez > Musikaria

## "Itoiz baino biziagoa izan zen Indar Trabes"

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Itoizeko sortzaile eta abeslari Juan Carlos Perezek izen handia du Euskal Herriko musikagintzan. Azken urteotan, ordea, mota askotako proiektuetarako lanak konposatzen dihardu, popa, musika klasiko eta garaikidea uztartzen.

**Zortzi urterekin Mutrikuko Mercedariasetako Elizako abesbatzan ez zintuzten hartu hortz zatarrak zenituelako...**

Bai, ustelduta neuzkan orduan. Ilusio handiarekin joan nintzen probara, eta ez ninduten hartu. Baina, handik urte batera parrokiako abesbatzan hasi nintzen. Hala kendu nuen trauma hori. Eta orduan piztu zitzaidan musikan aritzeko gogoa.

**Zelan gogoratzen duzu Indar Trabesen hasiera?**

15-16 urterekin lagun batzuekin elkartu eta rocka deskubritu genuen: beste soinu batzuk eta musika egiteko beste arau batzuk. Guretzako rocka zen klasikoa eta tradizionala baino erakargarriagoa; gainera, indar estetiko handia zuen 70eko rockak. Gure

taldeak zirenak imitatzen hasi gin: Creedence Clearwater Revival, Led Zeppelin, hasierako Pink Floyd...

**Zer harreman daukazu sus-traietkin, Galiziarekin?**

Gurasoek euren artean gailegoz berba egin izan dute, baina guri ez. Bazekiten gu hemen geldituko ginela. Hala ere, nik gailegoa oso ondo ulertzen dut. Txikitian apena joan ginen Galizia, eta orain tarteka joaten naiz, baina turista banitz moduan. Gustuko dut hara joatea.

### TEST-A

**Herria:** Mutriku. **Adina:** 49 urte.

**Ikasketak:** Zuzenbidea. **Zaletasunak:** Musika eta irakurtzea. **Bete-duzun amets bat?** Orkestrarako pieza bat idatzi eta estreinatzea, *Bizkaieraz*. **Zer amets daukazu betetzeko?** Bide hau jarraitzearekin konformatzen naiz. Oso gustura nago. **Noraegingozenuke bidai bat?** Greziara, Turkiara.... Ingruru bilbikoa da nire paisaia gustukoena: desertua, Mediterraneoa... Horren nahasketan.

**Zer sasoi duzu gogoko, Indar Trabesena edo Itoizena?**

Indar Trabesen garaian lotura handiagoa genuen kalearekin, entzuleekin. Itoiz, berriz, profesionalagoa zen; pilotalekuak lepo betetzen genituen, baina ez genuen inorekin harremaniak izaten. Askoz politagoa eta biziagoa zen Indar Trabes, duda barik.

**Ezinbesteko galdera: Lau teilitatu da zure abesti ezagunena. Bainan gustukoena duzu? Eta zer deritzozu Montero eta Erentxunen bertsioa?**

Abesti horrekin perspektiba galdu dut. Aspaldian, zerbait daukala esan ohi dut. Nik orduan nekien euskara kaskarrarekin, nerabe bat nintzela, amodiozko kanta hori idatzi nuen. Jende askok dio kantuak garrantzitsua izan dela, baina hori kantuak dauka, oso autonomoa da. Garattek dio kantuak borobiltasuna daukala, ziklikoa dela, akordeengatik... Bertsioari dagokionez, ez da nire estiloa, baina euren *terrena* eraman dute, eta sinistu dutela uste dut.



MUSIKAN Itoizeko kantari ohiak musikan dihardu gaur.

IKER BARANDIARAN

### ai, ene!



### Denondako pastel zati berdina

Opila zatitzen duenak zatirik onena hartzen duen kontua tresna honekin akabo. Bi aizto elkartu eta gainean zehaztasunezko gurpila zatitzeko.

<http://tinyurl.com/yodpa>

### biharamuna

Iñigo Biain


#### Pirata bat marrazo artean

**N**i ere pirata xamarra naiz, onartzen dut. Duela urte batzuk lagun batek talde bat gomendatu zidan. Niretzat talde ezezaguna zen, eta euren musika Internet bidez jais-tea erabaki nuen (ekimen pirata, onartzen dut). Baina, hara non, euren musika gustatu, eta denbora falta izan zitzaidan 18 euroren truke orijinala erosteko. Arazoa ondoren-go puntuaren dator: batez bestekoaren araberan, taldeak 18 euro horietatik 1,08 besterik ez luke jasoko (%6a), gainontzeko 16,92ak dendariaren, banatzairearen, diskotxearen eta egileen eskubideak kudeatzen dituzten erakun-

deen artean banatzen direlarik. Noski, horrela ulertzen da erakunde horien garapena: 2002an 31 milioi euroko irabaziak izan zituzten. Handik bi urtera, 2004an, 114 milioi izan ziren (kanon famatua indarrean jarri onoren, noski). Hala ere, "industria" gaizki doala diote, eta aurten kanon berriak indarrean jarri ditu Spainiar Gobernuak (produktu batzuetan %40rainoko igoera suposatuko dutenak). Dagoeneko talde horren lau disko erosi ditut, eta nire 72 eurotakik 4,32 besterik ez dute jaso musikariek. Arrazoia dute: "industria" gaizki dabil!



### eguraldia



MAXIMOA

+13

MINIMOA

+07

Zerua hodei gutxirekin esnatu arren arratsaldean ugaritu egingo dira. Ipar-mendebaldeko hain-za nagusituko da.

[www.euskalmet.net](http://www.euskalmet.net)

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**SOINUAK**: Bidali, SOINUE hutsunea  
**ABESTIAK**: Bidali, SOINUP hutsunea  
**LOGOAK**: Bidali, SOINUL hutsunea  
**JOKOAK**: Bidali, SOINUJ hutsunea

**KODEA**: KODEA  
SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEza

**5767** zenbakira

**SOINUAK ERREALAK (2 SMS)**  
Abestiarren izena **KODEA**

**LOGOAK (SMS 1)**  
**KODEA**

DEPOR.IZENA. OSUNA.IZENA. ZENBAKIA	ANOETA1	MENDI2	BELAK	ZORI3	IKURRI3	POPATIK1	AIZKORAK	ADRIAK
E ALONSO 17	ARCO	SADARI	ZORI1	ZORI4	KALABERA1	POPATIK2	EGUZKIORE3	ELORAN
BILBAO.IZENA. REALIZENA. ZENBAKIA	IPURA	EIBARPOOL	TOPA	TITULUA	MUSKARIA	SATANAS	ARRANAK	IDIAK
TXEDEBEIRIA 17	ARANBURU 11							

**WEBGUNEAN** [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

**OHARRAK**

**1. BATERAGIRITASUNA:** Registratu zure poltsikoko telefona bateragaria den eskaientzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragiri](http://www.smsoinu.com/bateragiri)  
Bertan jasoko duzu beharrezko duzen informazio guztia.

**2. BALDINTZAK:** Edukia eskuratu, beharrezko da GPS sistema aktibitatea izataea, GPS sistema aktibitateko, jar zaitez zure horriztalearekin hamemanetan. Alba ematea doa da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztieta deia eta GPS sisteman alta ematea doen dira.  
+ Euskalnet deitu 900 00 02 00 telefonora / \* Vodafone: deitu 123-a / Movistar: deitu 609-a

**3. ZALANTZAK:** Ezberdin zalduneko duzula, jarri gurekin kontaktua: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurriira egin ditzakegi abesti eta logoa. Webgune honetan kalteria eta grabatzaleek eskura dezelata nahi baduzu, jarri gurekin hamemanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.